




Ikastetxeak itxita

Eusko Jaurlaritzak ikastetxe guztiak itxiko ditu. Erabakiak Haurreskolei, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeei, Lanbide Heziketako zentroei eta unibertsitatei eragiten die, Nekane Murga Osasun arloko sailburuak azaldu duenez. • 2-3



Udaletako instalazioak itxita

Durangaldea | Iurretako, Durangoko, Abadiñoko eta beste hainbat herritako instalazioak itxi dituzte. • 2-3

VITALDENT

DURANGO
Landako etorbidea, 5
946 21 76 84


Kontsultatu baldintzak vitaldent.com-en. RPS: 255/19.
Osasun erregistroa: C.2.5.1.6611

Aho irribarretsua,
gure 30 urteengatik %20ko
beherapena eskaintzen dizuegu

20%

ORTODONTZIA
IKUSEZINA | NAGUSIENTZAT | UMEENTZAT





Eusko Jaurlaritzak EAeko ikastetxe guztiak itxiko ditu hamabost egunean, koronabirusari aurre egiteko

Udalek jubilatuen etxeak, musika eskolak zein kirol instalazioak itxi dituzte; kultur ekitaldi ugari bertan behera gelditu dira eskualdean

DURANGALDEA • E.H./J.D./J.G.

Koronabirusari eusteko bidean, Eusko Jaurlaritzak neurriak gogortu ditu. Erabakiak Haurreskolei, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeei, Lanbide Heziketako zentroei eta unibertsitatei eragiten die, Nekane Murga Osasun arloko sailburuak azaldu duenez.

"Jabetzen gara horrelako erabakiek gizartean duten eraginaz, baina uste dugu neurri egokiak direla birusaren hedapena gelditzeko. Osasun publikoko kontua da", adierazi zuen Murgak atzo eguerdiko agerraldian. "Euskadiko umeak osasuntsu daude, baina euren ezaugarriengatik birusa hartzeko eta transmititzeko kolektiboa osatzen dute. Gaixotasuna etxera eraman dezakete eta han pertsona zaurgarriak egon

daitezke: aitita-amamak edo gaixotasun kronikodun pertsonak, eta horrek ematen digu beldurra", arrazoitu zuen sailburuak. "Koronabirusari eusteko neurri bat da", gehitu zuen.

Neurria 15 egunerako aplikatuko da. Ikastetxe eta zentroek bazekiten erabakiaren berri, gaur goizetik, Hezkuntza Sailetik jakinarazi dietelako. "Aldi baterako etenaldia ez da eskola jardueraren etenalditzat hartu behar", azaldu du Cristina Uriarte Hezkuntza Saileko sailburuak. "Aitzitik, ahalgina egin behar dugu ikasleek egunero etxean ikasteko ohiturari eutsi diezaioten", gehitu du. Horregaitik, ikastetxeetako langileek euren ohiko ordutegiari eutsiko diote. "Ikastetxeek ohiko bideak zabalik izango dituzte familiekin komunikatzeko", esan zuen Uriartek.

346 lagunek dute koronabirusa

Gaixo kopuruari buruzko datuak eman zituzten. Atzo, 346 lagunek zuten koronabirusa Euskal Autonomia Erkidegoan, eta euretariko 147 ospitalean zeuden. Guztira, 11 lagun hil dira gaixotasunak eraginda. Honako hauek dira datuak lurraldeka: Araban 259 kasu daude, Bizkaian 71 kasu —38 ospitalizatu— eta Gipuzkoan 16.

Ekitaldiak bertan behera

Koronabirusa dela-eta, hainbat ekintza bertan behera utzi dituzte Durangaldean. Esaterako, Durangoko Udalak hainbat azpiegitura itxi ditu. Amankomunazgoak eten egin du Nagusilagun programa. Ekintza hauek bertan behera uzteaz gainera, beste hainbat neurri hartu dira eskualdean: Osasun Sailak jubilatuen etxeak zarratzeko eskaria egin du eta Euskadiko Fut-

bol Federakundeak partidu guztiak bertan behera utzi ditu.

Durangaldean eragina

55 urteko elorriar batek ingesatuta jarraitzen du Galdakaoko ospitalean koronabirusagaitik. Elorriarraz hartu-eman izan duten zortzi senide isolamenduan daude, etxean. Elorriarra otsailaren 19an ingesatu zuten Galdakaoko ospitalean, Zainketa Intentsiboetako Unitatean. Bere senideek ANBOTOri azaldu diotenez, A gripea, pneumonia eta bakterio bat diagnostikatu zizkioten. Astebete pasatu eta gero, gizona gela batera eraman zuten. Ospitale horretan koronabirusagaitik hildako 82 urteko gizona gelakide izan zuen. Eguazten arratsaldean hil zen. "Guk ere izan genuen hartu-eman gizon haregaz", dio familiak. Senideek diotenez, gelan argi laranja bat ikusi zuten,

eta itxarongela zarratu zuten. "Hala ere ez ziguten ezelango azalpenik eman", diote. Gauean, familiak deia jaso zuen ospitaletik. Gelakideak, geroago hil zenak, positibo eman zuenez, elorriarrak eta bertara bisitan joandakoez isolamenduan

Koronabirusa dela-eta, hainbat ekintza bertan behera utzi dituzte Durangaldean

egon behar zutela jakinarazi zieten. "Harrezkero hemen gaude, senarra ikusi barik. Gela batean dago, bera bakarrik. Ez du sukarrak eta askoz hobeto dago", dio emazteak. Koronabirusaren probaren emaitzen zain dago, etxera itzultzeko.

ITURRITZA 8
BERRIZ

TEL 946824112

BOUTIQUE LUISA
EMAKUME ETA GIZONEZKOEN MODA

urtxintxa
jostailu denda

Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69



“

**Pisukide baten enpresan
ABLEEa ezarri dute eta lanik
barik geratuko da ziurrenik”**

IURRETA • A.M.

Oier Amezua iurretarra eta Jon Ramirez durangarra Madrilen bizi dira. Biak unibertsitate mailako ikasketak egiten ari dira. Hamalau egunean unibertsitateak itxita egongo dira, eta salbuespenezko neurriaren ondorioz, etxera etortzea erabaki dute.

Zelan eragin dizute erabakiak?

Oier Amezua. Klaseak bertan behera geratu dira hamalau egunerako. Horrez gainera, osabagaz Santiago Bernabeu futbol-zelaira joateko asmoa nuen, baina ateak itxita jokatuko dute partidua, eta ezingo gara joan; palkora joatekoak ginen, gainera.

Zelan jakin zenuten unibertsitatea itxiko zutela?

Lehenengo, komunikabideen birtartez; gero, klasekide batek email bat bidali zuen dokumentu bategaz, eta, azkenean, gure unibertsitatearen email bat jaso genuen. Zelako giroa utzi duzue Madrilen? Argazkian ikusi daitekeen moduan, ezohiko giroa dago. Sol plaza hutsik zegoelako, besteak beste. Nire pisukideetarik batek ekitaldietan lan egiten du, eta, arazo honen ondorioz, bere enpresan aldi baterako lan erregulazio espedientea (ABLEE) ezarriko dute, eta horrek eragin handia izan du berarengan.



“

**Irakasleok elkarrengandik
metro batera egon behar
dugu gutxienez”**

IRAKASLEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Eneritz Urrutibeaskoa markinarra da, Durangon bizi da eta Gasteizko Gortealde Hezkuntza Bereziko Ikastetxe Publikoan lanean dabil. Koronabirusa dela-eta, martitzenetik hona Urrutibeaskoaren ikasleak ez doaz klasera.

**Ikasleak eskolara ez, baina zuek lane-
ra joan behar duzue.**

Astelehenean erabaki hori hartu zuten Lakuan, eta ordutik hona egoera hori dugu eskolan.

Erabakiak harritu egin zintuen?

Egia esan, bai. Lehengo astean, protokolo bategaz hasi ginen; gero, ikasgela barruetan gelak ipini zizkiguten, eta, barikuan, zentroan

dugun igerilekua itxi egin ziguten. Astelehenean klaseak bertan behera geldituko zirela jakinarazi ziguten, eta orain esan digute behar bada guk ere etxera joan beharko dugula.

**Lanean segurtasun neurririk bete
behar duzue?**

Irakasleok elkarrengandik metro batera egon behar dugu gutxienez, bileretan gehienez bost pertsona egon gaitezke eta lan orduetan ezin dugu zentrotik irten.

**Igarri duzu urduritasuna lankideen
artean?**

Lankideok lasai gauden arren, zuzendaritza taldekoak urduri sumatzen ditugu, arduratuta daude.

Eta orain? Zure Mercedes.

Clase A, Clase A Sedan, Clase B edo CLA Coupe, MBUX adimen artifiziala, aldaketa automatikoa eta AMG Line dituenak. Renting Complete, segurua, bermea eta mentenimendua barne.



315€-tik aurrera/hilean¹

48 kuotatan. Renting Complete²

Hasierako diru-ekarpena Clase A 180 d: 10.270,82€



Kontsumo mistoa : 4,5-8,7 (l/100Km). CO2 isurketa: 118-198 (g/km) (NEDC: 101-192).

¹ Renting-adibidea Mercedes-Benz Complete-rekin : CLA A 180 d, 7G-DCT aldaketa automatikoa, Line eta Premium paketea dituena; hilean 315€-ren truke, BEZ barne. Sarrera 10.270,82€, BEZ AMG barne, 48 kuotatan eta 20.000 km/urtean. Baliozko eskaintza 31 urte baino gehiagoko bezeroentzat, pneumatikoak ez daude barne². Iraunaldia: 2020/03/31ra arte egindako eskaintzak, 2020/04/15era arte onartutako eskariak eta kontratua indarrean egon 2020/05/31ra arte. Iraunkortasuna: 24 hilabete gutxienez. Mercedes-Benz Complete, Mercedes-Benz Renting S.A. (Bruselas etorbidea, 30, 28108, Alcobendas-Madril)-ek komertzializatzen duen marka da. Argazkiko modeloa agian ez dagokio eskaintzari. Informazio gehiago www.mercedes-benz.es-en.

Aguinaga

Mercedes-Benz kontzesionario ofiziala

Retuerto kalea, 38.

48903 BARAKALDO.

Tel.: 94 497 00 74.

www.mercedes-benz-aguinaga.es

Boroa enpresa-parkea, 2A-3

partz. 48340 ZORNOTZA.

Tel.: 94 630 17 47.

Botica Vieja kalea, z.g.

48014 BILBO (DEUSTU).

Tel.: 94 447 08 40.

Iparragirre etorbidea, 90.

48940 LEIOA.

Tel.: 94 463 11 75.

Izurtzan Etxano auzoko bidea konpontzen hasi dira aste honetan

IZURTZA • J.D.

Izurtzako Etxano auzoko bidea konpontzen hasi dira aste honetan. Euria egiten zuenean urak bidera irteten zuenez, bide ondoko arekak konpondu egingo dituzte. Lan horiez gainera, auzo bidea bera ere eraberrituko dute, besteak beste. Bidea konpontzeko lanek 13.000 euroko aurrekontua dute eta zati bat Mañariko Udalak ordainduko du, bideko zati bat Mañariko lurretan dago eta.

Mirugainen irteera Izarraitz mendia igo eta San Inazioaren estatua bisitatzeko

OTXANDIO • J.D.

Mirugain mendigoizale elkar-
teak irteera antolatu du dome-
karako, Izarraitz mendilerroan
dagoen San Inazioaren omenez-
ko estatua handia bisitatzeko.
Autobusak 07:00etan irtengo du
Zestoara. Zestoan hasi, Izarraitz
zeharkatu eta Azpeitian amai-
tuko dute mendi ibilbidea. San
Inazioaren estatua Xoxote tonto-
rraren ondoan dago eta 1956an
ipini zuten han, San Inazioaren
heriotzaren 400. urteurrena
gogoratzeko.

Eurokopa Honi Ez plataformak ohartarazi du futbolzale "faxistak" etortzekoak direla Bizkaira

Plataformak topaketa nazionala egingo du zapatu honetan Durangon, eta topaketa hori baliatu gura du Eurokopak Bilbora eta ingurura ekar ditzakeen arazoei aurrea hartzeko. Durangoko merkatu plazan eta Plateruenean egingo dituzte topaketak

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Bilbo izango da aurtengo Euroko-
pako eszenatokietariko bat, eta
haregaz kritiko den Bilbao 2020
Eurokopa Honi Ez plataformak
topaketa nazionala egingo du,
Durangon. Zapatu honetan bertan
egingo dute. Eta Durangoko topa-
keta hori baliatu gura dute, hain
zuzen ere, Eurokopak Bilbora eta
ingurura ekarriko lituzkeen ara-
zoei aurre egiteko. Plataformako ki-
deen esanetan, Eurokopak ondorio
"nabarmenak" utziko ditu. "Kapita-
laren eraso modura ulertzen dugu
Eurokoparen etorrera. Burgesiaren
estrategia bati erantzuten dio, ma-
krojaialdien ereduari. MTV jaial-
diagaz, Red Bullen saltoekin eta Bil-
boko Udalak Europridean sartzeko
egindako eskariagaz ikusi ditugu
halakoak. Ostalaritzara eta hotele-
tara onura ekonomikoak ekarriko
dituela diote, baina diskurtso fal-
tsuak dira. Miseria ekarriko dute",
diote plataformako kideek. "Lan
prekarioa sustatuko dute, jakin
badakigulako 1.000 boluntario in-
guru arituko direla Eurokoparako
lanean, debalde", gehitu dute.

Faxisten etorrera

Plataformako kideek ohartarazi
dute eskuin muturrari lotutako



Bilbao 2020 Eurokopa Honi Ez plataformak egindako mobilizazio bat.

futbol jarraitzaileak ere etorriko
direla Bilbora eta inguruetara.
"Espainiako selekzioak gutxienez
hiru partidua jokatu du Bilbon.
Partiduetariko bat Poloniaren aur-
ka jokatu du, eta Suediaren kon-
tra beste bat. Hiru selekzioen jarrai-
tzaileen artean talde faxistak dau-
de. Eta etorriko direla esan dute.

Poliziak errefortzuak eskatu ditu,
baina guk ez dugu Bilbo militariza-
tu bat gura", diote. Eskuin muturre-
ko jarraitzaileek bereziki prostitu-
tak eta tabernetan lan egiten duten
emakumeak jomugan ipiniko
lituzketela uste dute plataformako
kideek. Honi guztiari aurrea hartu
eta antolatze baliatuko dituzte

Durangoko topaketak. Zapatuan
mahai-ingurua eta bazkaria egingo
dituzte, merkatu plazan. Gero, ma-
nifestazioa egingo dute Durangoko
kaleetatik, eta gauean kontzertuak
izango dira Plateruenean. Brigade
Loco, Azken Sustraiak, Egurra ta
Kitto eta Odolkiak Ordainetan ari-
tuko dira oholtzan.

Tren geltokiaren galdeketari buruzko ebazpena hile eta erdi atzeratzea eskatu dio ministroen kontseiluak Durangoko Udalari

Durangoko Udalak Madrilgo ministroen kontseilutik heldutako jakinarazpena jaso du asteon. Galdeketaren ebazpena atzeratzeko arrazoiaren artean, "Eusko Jaurlaritzak egindako txosten bat" dagoela diote udal gobernu taldeko kideek

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Epea agortu zaio ministroen kon-
tseiluari eta luzapen bat eskatu
du. Durangoko udalbatzak joan
zen azaroaren 27an onartu zuen,
aho batez, tren geltokiari buruzko
galdeketa egiteko baimena eska-
tzea Madrilgo ministroen kontsei-
luari. Ordutik hona, ministroen
kontseiluak hiru hilabeteko epea
izan du galdeketari argi berdea
ala gorria emateko, kale ala bale
egiteko. Baina epea agortu zaio-
nez, epea hile eta erdi luzatzeko
eskaria egin dio orain Durangoko
Udalari. Atzerapen horren arra-
zoia Eusko Jaurlaritzak Madrilgo
ministroen kontseiluari aurkez-
tutako txosten bat litzateke, Du-
rangoko udal gobernu taldearen
esanetan.



Durangoko udalbatzak joan zen azaroaren 27an onartu zuen, aho batez, galdeketa egiteko baimena eskatzea Madrili.

Gobernu taldeko kideek diote-
nez, galdeketa zilegia zela zioen
"txosten bat" aurkeztu zezala
eskatu zion ministroen kontsei-
luak Eusko Jaurlaritzari. Aldi be-

rean, Durangoko Udalak dio Jaur-
laritzak "interes gatazka" duela
galdeketari eta orain urte batzue-
tatik hona egindako proiektuari
dagokienez, eta oraindik ez diola

galdeketari buruzko baloraziorik
eman ministroen kontseiluari.
Horren aurrean, Madrilgo kon-
tseiluak bigarren txosten bat
egitea eskatu du orain. Bizkaiko

Foru Aldundiari egingo diote es-
kari hori oraingoan.

Udalaren erreakzioa

Durangoko Udaleko arduradunen
esanetan, Eusko Jaurlaritzaren
erantzuna "ez da errealtatea-
gaz fidela" eta galdeketa "are eta
gehiago" luzatzeko asmoa ager-
tzen du. "Eusko Jaurlaritzak eran-
tzun lez bidali duen txostena
eskatu dugu, eta egia ez diren
hainbat gauza esaten ditu", diote
udal iturriek. Gobernu taldeak
azaldu du galdeketa egin ahal iza-
teko tramiteekin jarraitzen duela,
nahiz eta ministroen kontseilu-
aren atzerapenak galdeketa "uda
ostean" egitea eragin dezakeen.

Durangoko Udalak eta Erabaki
plataformak joan zen azaroan
adostu zuten durangarrei egin
beharreko galdera. Alde biak
pozik agertu ziren durangarrei
ahotsa emateko aukeraz, eta, au-
rreikuspenen arabera, gobernu
taldeko kide batzuek aurreratu
zuten galdeketa baimendu egingo
zela. Ministroen kontseiluaren
ebazpenak argituko du dena.

“Urte askoan D ereduak helburu batzuk bete ditu eskoletan, baina orain aldatu beharra du”

Durangaldeko eskola publiko bateko LH 5 eta 6ko ikasleak aztergai, Eider Saragueta ikertzaileak euskararen erabileraren inguruko azterketa egin du



Eider Saragueta Garrido
EHUko ikertzailea
Ibarra | 1989

DURANGALDEA • IGOR GALARZA
Eider Saraguetak ikerketa egin du Durangaldeko eskola publiko batean. Adingabeen informazioa babesteko, ez du zehaztu zein eskolatan egon den. Eskolan euskarak umeen artean duen presentzia ikeritzeko asmoagaz egin du lana.

Zer esan gura du translanguaging terminoak?

Eleaniztunok hizkuntza batean zerbait jaso eta beste batean emateko gaitasuna da. Adibiderik garbiena zinearekin egin dezakegu: guk erdaraz kontsumitu dezakegu filma, baina, gero, kuadrillakoen artean filmaren ingurukoak euskaraz kontatzeko gaitasuna dugu. Finean, ariketa bat hizkuntza batean jasotzea edo egitea, eta beste batean ematea da. Hori oso modu orokorrean esanda.

Zein izan zen eskolara heldu zineneko lehenengo irudia?

Euskara irakaslearekin euskaraz komunikatu, baina taldeka lan egitean, ikasleak gaztelaniaz hitz egiteko joera du. Era berean, beraien arteko elkarriketa pribatuak, iritziak, partekatzen dituztenean, gaztelaniaz egiten dituzte.

Beste hizkuntzekin berdin gertatzen da?

Egoera aldatu egiten da euskara, gaztelania edo ingeles klaseak ematen dituztenean. Gaztelania klasean gaztelaniaz hitz egiten zuten. Baina esku-hartzearen bidez, ikasleak euskaraz mintzatzen hasi ziren. Irakaslea eta biok harritu gintuen joera aldaketa izan zen.

Zer aldatu zen hain zuzen?

Gaztelaniazko testu bat irakurri eta gero, galderei batera erantzun behar zitzenean, euskaraz komu-

nikatzen hasi ziren klasekideekin. Hori bai, umei galdetzean lagunekin zein hizkuntzatan komunikatzen ziren, gaztelaniaz edo gaztelania eta euskara tartekatuta hitz egiten zutela erantzun ziguten.

Euskara hizkuntza akademikotzat dute umeek?

Bai, eta ikerketan ikusi dudana-gatik, nahiz eta ez den eskola honetako kasua izan, inguruak asko baldintzatzen du, eta inguruak ez bada euskara maila jakin batekoa, gaztelaniaz harremantzen eta sareten dira.

Etetik edo kaletik eskolarako bidea egiten du soilik translanguagingak?

Lagundu dezake eskolako hizkuntza, hau da, euskara, etxera eramaten, kontrako norabidea eginez.

Zein da euskararen gabezia umeen inguruan?

Eskolan, eta oro har baita, egindako

ikerketaren arabera, euskara ikasi eta jakin bai, baina erabilerarako pausoa falta da. Hainbat faktore daude horretan eragiten dutenak. Azken urteetan ikusi da eskola oso eremu eta tresna aproposa dela, baliagarria eta eraginkorra euskara sostengatzeko. Baina ez da bakarra. Komunikabideak daude, gizartea dago, herria eta eskolaren ingurua dago... Hainbat faktore daude, beraz. Eskolak lan zehatz bat egiten du, eta, nire ustez, oso ona da.

“**Hamahiru ikasletik hamabik euskara maite zuten, baina erabilerara orekatua zuten erdararekin**”

Zelan ari dira eskolak hori lantzen?

Eskolek aisialdirako eskolaz kanpoko jardueretan egiten duten ahalegina nabarmentzekoa da. Badituzte baldintza eta espezifikazio batzuk, zeinetan zehazten duten jarduera horietara doan umea euskalduna izan behar dela. Horren bitartez, euskara erabiltzera animatzen dituzte ikasleak.

D ereduak funtzionatzen al du?

Eusko Jaurlaritzaren ikerketen arabera ikusten ari gara euskarak atzerapauso bat eman duela erabilerari begira. D ereduak urte askoan helburu batzuk izan ditu, baina gaur egun dugun ikasle tipologia desberdina da. Bere sasoian, helburu batzuk betetzeko sortu zen, eta orain ikusten dut aldatu beharra duela. Eskolak asko aldatu dira, eta molde berriak behar ditugu profil berri horietara heltzeko.

Gertatzen al da euskara etxetik duen umeak erabiltzeko lizentzia gehiago duela sentitzea, eta aldrebes?

Ez dut uste. Nire ikerketaren baitan

baziren haur batzuk inguruko herri txiki eta oso euskaldun batekoak izanda ingurukoekin gaztelaniaz mintzatzen zirenak, euskaldun petoak izanik ere. Hor eremu zabal bat dago, ikasleen abanikoa handia da. Jarraipena egin nien hamahiru ikasleetatik hamabik euskara maite zuten, begiko zuten, erabat, baina erabilerara nahiko orekatua zeukaten euskararen eta erdararen artean.

Estrapolatu daiteke ikerketa Euskal Herria?

Ikerketa egiteko faktoreetako bat lurraldea da. Ez da azterketa bera egingo Bilbo erdian, Maulen edo Lizartzan. Eremu aberasgarri asko daude Euskal Herrian. Ikerketak Durangaldeko eskola bateko argazkia egiten du bakarrik. Suposatzen dut gaur egun ere gauzak aldatuta egongo direla.

“

Ikasleak hiru hizkuntza ditu, eta bakoitzean terminoen baliokideak bilatzen saiatu behar da”

Translanguagingak haurraren hizkuntza beste hizkuntzez zikindu dezake.

Hiztegia lantzeko egongo litzateke kasu horretan. Gaia eta kontzeptua ulertzeko gai bada, laguntza behar du beste hizkuntzetan kontzeptua eta hitz gakoak ikasteko. Ez dira gauza bera eskolako hiztegia eta lagunekin duten tonu informala. Garrantzia ematen diot prestaketari, testuak etxean prestatu eta ikasgelan behar bezala adierazteari. Ikasleak hiru hizkuntza ditu, eta bakoitzean terminoen baliokideak bilatzen saiatu behar da. Ikerketan ikusi dugu kasu horretan hiru hizkuntzak maila berean daudela.

katerin ardoak
iñaki uribe

25^{urte} Saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetak menu bereziak
Delicatessena - Ardogia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan.com

ALDEKOA-OTALORA
iturgintza

BEROKUNTZA - AIREA - GASA
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaotalora.com
Zubiaurre, 8 IURRETA
946 202 768

Arzubia 10 B industrialdea, 13-14 pabiloiak ABADIÑO
944 071 791 - 692 859 779

Gisasola Pentsuak
- EKO GARDEN -

Ortuko landareak urte guztian

Trañabarren, 27 · Matiena-Abadiño
Tel.: 946 816 687
gisasola.p@gmail.com

Abadiñoko zebrabide guztiak egoki argiztatzeko "plan integrala" ezarri gura du udalak

Azaroan martxan ipinitako prozesu parte-hartzailean botorik gehien jaso zuen proposamena izan zen zebrabideena

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

Prozesu parte-hartzaileak edukitako jarraipenaren balorazio "oso positiboa" egin du Abadiñoko Udalak. "Hamasei urtetik gorako abadiñarren %10ek parte hartu dute, eta hori arrakastatsua da guretzat", azaldu zuen Ana Gomez Gobernantza eta Herriarren Par-taidetza arloko zinegotziak. Mikel Garaizabal alkateagaz batera eskaini zuen prentsurrekoa, prozesuaren eta emaitzen irakurketa eskaintzeko.

Zebrabideak egokitzeko prozesua "integrala" izango dela azaldu zuen alkateak prentsurrekoan: "Lehenengo eta behin, Zubibitarte eta Taberna Zarra pareko zebrabideak argiztatuko ditugu; argiztatu bakarrik ez, margotu edo bestelako neurririk hartu beharko den ere ikusiko dugu, gero neurri horiek gainerako zebrabideei ere ezartze-ko".

Zebrabideena proposamenik bozkatuena izan zen; hala ere, Gaztanodiko haur parkea konpontzeko, pumptrack edo skatepark bat eraikitzeko eta Gazteluko udal lurretan hektarea bi landatzeko proposamenak ere oso bozkatuak izan ziren. "Legegintzaldian zehar, proposamenik bozkatuenak au-



Ana Gomez eta Mikel Garaizabal.

rrera eramaten ahaleginduko gara", esan zuen alkateak. Aurrekontuetan 50.000 euroko partida gorde zuten proposamen hauetarako.

Prozesu berria

Horrelako esperientzia bat martxan ipini duen lehenengo aldia

izan da Abadiñoko Udalarentzat. Emaitzak ikusita, datorren ikasturtera begira beste prozesu bat martxan ipintzeko asmoa iragarri zuen. "Aurtengoa lehenengo hartu-ema-na izan da, eta datorren ikasturtera begira, gustatuko litzaiguke zer bait aurreratzea prozesua, irailera-edo", aurreratu zuen Garaizabalek.

Aurrekontuetan 50.000 euroko partida gorde dute prozesu parte-hartzailerako

Mallabiko Udalak alegazioak ipiniko ditu goi-tentsioko argindar linea dela-eta

Helduleku bi dituzte alegazioetarako. Batetik, lineatik 100 metro baino gutxiagora dauden bizilekuak daudela; bestetik, Mallabiko hainbat animalia espezieri egin diezaiokeen kaltea



Goi-tentsioko argindar lineako dorre bat Mallabian.

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Mallabiko Udalak herri batzarra egin zuen joan zen astean, goi-tentsioko argindar linearen gaineko xehetasunak azaldu eta aurrera eramango dituen neurrien berri emateko. Alegazio bi ipintzeko asmoa du udalak, eta gaian aditua den Alberto Arrate abokatuaren laguntza dute horretarako.

Alegazio bat Espainiako Ingu-rumen Ministerioko Ingurugiro Zainketarako Departamendura bideratuko dute. Organo horretara jo daiteke lineako ingurumen inpakturako txostena bete ez dela irizten bada, eta horixe uste du udalak. Ezin da etxebizitzarik egon lineatik 100 metro baino gutxiago-ra, ezta populazio talderik ere 500 metro baino gutxiagora, eta Malla-bian kasu biak gertatzen dira. Etxe-

bizitzetan erradiazio neurketak egingo dituzte, bai orain, bai linea jarri ondoren, alderaketak egiteko. Gainera, medikuntza katedradun baten iritzia jasoko dute, euren argu-mentua gehiago indartzeko.

Bigarren alegazioa Bizkaiko Aldundira bideratuko dute. Aldun-diak, urte hasieran, ez zuen Igorre

Bizileku bat argindar lineatik 100 metro baino gutxiagora dago; alegazio bat horren ingurukoa da

inguruan linea egiteko baimenik eman, babestuta dagoen sai zuria-ren espezieari eragin ziezazkion kalteengatik. Mallabian, galzorian dauden hainbat espezie daudela uste dute eta biologian eta zoologian aditua den pertsona bati azterketa bat aginduko diote. Animalia horie-tariko bat igaraba da. Orain urte batzuk, bat aurkitu zuten Mallabian. Animalia horrek sai zuria baino babes maila handiagoa du erakun-deen partetik.

Martxan da udal bankua mugikortasun arazoak dituzten herritarrentzat

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berrizko Udalak laguntza tek-nikoen udal bankua martxan ipini du mugikortasun arazoak dituzten herritarrentzat. Ban-kuari eskerrak, 18 laguntza-pro-dukto ipiniko dituzte udalean herritarren eskura: taka-taka bi, lau komun altxagarri, lau gur-pildun aulki, lau makulu pare eta ebakuntza osteko lau zapata.

Produktu hauek Berrizko herritarrentzat izango dira ba-karrik, eta medikuaren agiria eduki beharko da udal banku-tik hartzeko. Gainera, eskaerak udaleko Herriarren Arreta-rako Zerbitzuan egin beharko dira.

"Udal zerbitzu berri honek mugikortasun arazoak dituzten eta zenbait jardura aurrera eramateko zailtasunak dituzten pertsonen autonomia bultza-tzea du helburu. Beraz, lagun-tza-produktu hauek eskaintzen dituzten abantailek pertsonen bizi kalitatean eragingo dute", azaldu du Lorea Rementeria Gizarte Zerbitzuetako zinego-tziak.

Bestalde, udalak ohar baten bitartez jakinarazi du La Cai-xak emandako 2.000 euroko diru laguntzagaz erosi dituztela dohaintzan jaso ahalko diren 18 produktu hauek.

Mañariko Andra Mari elkarteak udalekuetan izena emateko epea hasi du

MAÑARIA • J.D.

Mañariko Andra Mari Aisialde eta Kultur elkarteak lau urtetik aurrerakoentzako udalekuak antolatuko ditu ekainaren 22tik uztailaren 24ra bitartean egite-ko. Martxoaren 23tik apirilaren 5era arte eman daiteke izena

Udalekuetan izena emateko epea martxoaren 23tik apirilaren 5era izango da

udalekuetarako, biagea77@gmail.com helbidearen bitartez. Pre-zioa, asteko, 60 euro da elkarte-ko kideentzat, eta 80 euro elkar-teko kide ez direnentzat. Uda-lekuetan hondartzara irteerak, ibilbideak, jolasak, tailerrak... egingo dituzte.

Martxoaren 29an Atxondon AHTaren kontra egingo duten manifestazioagaz bat egiteko deia egin dute hainbat herritarrek

12:30ean Apatamonasterioko plazan hasiko da AHTaren kontrako manifestazioa; inguruko herrietako herritarrei Atxondora bertaratzako deia egin diete



Dozenaka lagun batu ziren martitzenean egindako prentsaurrekoan.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko AHTrik Ez plataformako kideek prentsaurrekoa egin dute asteon, martxoaren 29ko manifestaziora dei egiteko eta azken asteotako lanak salatzeke. "Hasi dira Atxondoko zein inguruko herrietako lurak porlanez betetzera datozen Abiadura Handiko Trenaren obrak.

Azken egunotan agertu diren markek ikustarazten digute triskantza abiadura handian datorrela Atxondora", salatu zuten plataformako kideek.

Atxondotik, 1.754 metroko luzera izango duen zubi bat igaroko da, Apatamonasteriotik hain zuzen ere, eta zutaberi altuenak 85 bat metro izango ditu. "AHTa ga-

rapena dela diote, baina herritarrek zorpetuko dituen zentzurik bako makroproiektua da, enpresa jakin batzuen interes ekonomikoen mesederako eta gure herrien kalterako izango dena", esan dute. Bestalde, orain 12 urte egindako herri galdeketa atxondarrak AHTaren kontra daudela "argi" gelditu zela gogoratu dute.

Gainera, udal gobernuaren jarraia kritikatu dute. "Jarrera penagarria hartu dute. Desinformazioaz jokatzen dabilta, eta ez dute gura herritarrok ezer jakin dezagun egiten dabilta obren inguruan", esan dute.

Horregaitik guztiagaitik, martxoaren 29rako antolatu duten manifestaziora joateko deia egin diete atxondarrei eta inguruko herrieta-

ko biztanleei. "Trena gelditzea posible da, eta, beraz, dei egiten diegu norbanako, herri eragile, sindikatu eta erakundeei borroka honetan elkarrengaz ekiteko. Durangaldeak ez die alfonbra gorriak ipiniko, ez ADIF-i, ez herria suntsitzera etorri diren enpresei", gaineratu dute. Manifestazioa 12:30ean hasiko da, Apatamonasterioko plazatik.

Zirku eta eskulan tailerrak antolatu dituzte 7tik 13 urtera arteko gazteentzat

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udalak zirku eta eskulan tailerrak antolatu ditu apirilaren 6tik 8ra bitarteko egunetarako. 2006tik 2013ra bitartean jaiotako neska-mutilei bideratuko tailerrak dira biak, antolatzailerak jakinarazi dutenez. Goizean izango dira, 09:30etik 13:30era.

Izena emateko egunen berri ere eman dute. Martxoaren 23tik 27ra dago horretarako aukera, Ibarretxe kultur etxean.

Geuberi laguntza

Bestalde, Iurreta Lanbide Heziketako ikasleek Ikasapresa proiektuagaz lortutako 200 euroak Geube elkarteari emango dizkiote. Ikasleek, euren baliabideekin, jostailuak diseinatu eta sortu dituzte. Otsailean, Eibarren izandako Ikasapresa Azokan saldu zituzten eta lortutako dirua dohaintzan eman dute.

Lehen sektorea garatzeko asmoz, Garaiko Udalak herriko basoen hedadura zabaltzeko neurriak ipini ditu martxan

Udalak 40.000 euroko diru partida bat prestatu eta deialdi publiko bat egin du lursail gehiago eskuratu ahal izateko. Lehen sektoreari jarraipena ematen ahalegindu gura du, basoen paisaia, kudeaketa eta bioaniztasuna garatzeko

GARAI • EKAITZ HERRERA

Azken urteotan basoari lotutako jardunak murriztu egin direla-eta, Garaiko Udalak ahalegina egin gura du egoera aldatzeko. Herriko basoen eta lurren ustiapenari bultzada bat eman gura dio, eta deialdi publiko bat egin du horretarako. Hain zuzen ere, 40.000 euroko diru partida prestatu eta basoak ustiatzeko deialdi publikoa egin du. Udalak herriko lur gehiago eskuratu gura du, hartara "lehen sektoreko jarduerari jarraipena ematen ahalegintzeko".

Garaiko alkate Erramun Osak azaldu duenez, hiru dira neurriak barnebiltzen dituen ardatzak. Basoen osasuna zaintzea, zuhaitzen espezieak ugaritzea eta bertako espezieen hedadura indartzea da horietariko bat. Pagoa, gorostia, gaztainondoa, haritza eta artea leudeke horien artean. Deialdi publikoak hartzen duen beste ardatz bat gazteriarri begirakoa da. "Lehenengo sektoreko jarduerari jarraipena

ematen ahalegintzeko, lurak eskuratzeko da asmoa. Lurrok, etorkizunean, bestelako herri erakundeek sorturiko lur-bankuetara bildu gura dira, abeltzaintzaren, ortugintzaren eta lorezaintzaren politika publiko berriak bultzatzeko", esan du Osak. Asmoa "sektorea gaztezea" dela dio, eta "halako jarduerak

Abeltzaintzaren, ortugintzaren eta lorezaintzaren politikak sustatu gura dituzte

sustatu gura dituztenei, besteak beste gazteei", eskaintzea lurak.

Informazioa udaletxean

Garaiko udalerrian basoak eta lurak dituzten norbanakoei dago zuzenduta deialdia. Izan ere, Garaiko Udalak dioenez, basoen eta lurren plangintza eta ustiapena "garaitarren interesak gogoan" eta



Garaiko udaletxean egindako osoko bilkura bat.

Bizkaiko Foru Aldundian eskumena duen sailagaz koordinaturik egingo dira. Informazio gehiago eskuratu gura duenak udaletxera bertara jo edo udalaren webgu-

nean kontsultatu dezake. Udalbatza osatzen duten EAJk eta Herriko Taldeak aho batez onartu dute neurria, EAJk alde aurretik hala proposatuta.



www.gualbiasesores.com

- ✓ Aholkularitza fiskala
- ✓ Kontabilitate-aholkularitza
- ✓ Merkataritza eta finantza-aholkularitza
- ✓ Lan-aholkularitza
- ✓ Kontu-auditoretza
- ✓ Aholkularitza juridikoa

**Bezera, bere enpresako kudeaketa
eta bere gogobetetzea dira gure helburu nagusia**

Zumalakarregi kalea, 18 1.A - DURANGO
Tel.: 946 818 636 - Faxe.: 946 203 637 - info@gualbiasesores.com

“Gustuko dut jendea zoriontsu egitea; ez dut ulertzen zergatik gauden hain zakar, pozik egon gaitezkeenean”

David Rodriguez zornotzarrak jolas bat zabaltu du Zornotzan. Harriak margotu eta herriko parkeetan barreiatzen ditu, gero herritarrek topatu ditzaten



David Rodriguez Nieto

Zornotza | 1972

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Jolasa ez da Rodriguezen asmakuntza, baina bera izan da Zornotzara ekarri duena. Amore-Roc izeneko Facebook orrian sartuta parte hartu daiteke jolasean. Durangon eta Abadiñon ere badira, besteak beste, pareko egitasmoak.

Jolas sinpatikoa dirudi, baina zertan datza hain zuzen?

Harri batzuk hartu, margotu eta Zornotzako parkeetan zehar ezkutatzen ditut. Jolastu gura duten herritarrek, parkean barrena ibili, harriak topatu eta horien argazki bat partekatu behar dute Amore-Roc Facebook orrian, harria aurkitu izanaren froga modura. Gero, topatutako harria errebotatu egin behar dute. Hau da, beste toki batean ezkutatatu behar dute, beste herritar batzuek aurkitu ditzaten. Jolasa berrekiten da horrela.

Zer margotzen duzue harrien gainean?

Denerik. Ume txikien marrazkiak

dira ederrenak. Guk txakurra ikusten dugun tokian katua marraztu dutela diote haiek. Polita da ume baten irudimenetik zer irteten den ikustea eta margotutakoari interpretazio bat ematea.

Nondik nora sortu zen margotutako harriekin jolasteko ideia hau?

Sare sozialetan ikusi nuen Badajoz aldean (Espainia) martxan zutela horrelako egitasmo bat. Ruben Del Pozo izeneko herritarrena zen ideia. Patentatuta dauka. Bere ideia hori baliatu ote nezakeen galdetu nion, eta baimena eman zidan. Etxean hasi nintzen jolasten, 5 eta 12 urteko seme-alabekin, harriak etxean barrena ezkutatuta. Osabaizeekin ere jolasten ginen. Gero, Jauregibarriko parkera eraman genuen ideia, Zubiondo eta Zelaietara. Eta hortik Zornotza osora zabaltu da.

Zerk motibatzen zaitu harriak hartu, margotu eta ezkutatze lan altruista hori egitera?

Gustuko dut jendea zoriontsu egi-

tea. Leku askotan giro txarra dagoela ikusten da, eta ez dut ulertzen zergatik gauden hain muturbeltz, pozik egon gaitezkeenean. Zer dago jendea zoriontsu egitea baino gauza hoberik? Tristeia da umeak eta gurasoak parkean mugikorrari itsatsita daudela ikustea. Jolas honek ibiltzera garamatza, jolastera, harriak margotzeagaz zaletasun moduko bat lantzen. Jendea zoriontsu egiten jarraitu gura dut.

Jolasean parte hartzeko gogoia ematen du. Zer egin behar da jolasean hasteko?

Facebooken Amore-Roc izeneko orrialdea topatu eta taldera batzeko eskaria egin. Hartu harri batzuk, margotu eta ipini atzealdean "Amore-Roc Facebook" dioen testua. Ekarpenean egin gura duenak hartu ditzala harriak, margotu ditzala eta ezkutatatu ditzala. 10-15 erabiltzaile gaude, eta asko batu dira azken aste honetan. Harri kopuru polita ezkutatuz gero, jendea ez da herririk ez topatzeagatik triste etxeratuko.

Elorrioko errugbi-zelaian 200 lagunentzako harmailak izango dira urte amaierarako

Joan zen asteko osoko bilkuran, 445.557 euroko kreditu gehigarria onartzea erabaki zuten, errugbi-zelaian harmailak ipini eta taldearen egoitza berria egin ahal izateko



Harmailak urte amaierarako eginda egotea aurreikusten dute.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Eskola eta errugbi-zelaiaren eremua berrantolatzen dabiltza Elorrion, eta, urte amaierarako, 200 lagunentzako harmailak egingo dituzte. Gainera, eraikin horretan errugbi taldearen egoitza berria ere egongo da.

Orain ia 30 urte errugbi-zelaia egin zuten Elorrion, eta ordutik hona zaleek ez dute aterperik izan eguraldi txarrari aurre egiteko. "Harmailena errugbi taldearen erreibindikazio histo-

riko bat da", azaldu du Dani Palacios Kirol arloko zinegotziak. Beraz, Elorrioko Udalak konponbidea eman gura dio arazo horri.

Joan zen asteko osoko bilkuran, 445.557 euroko kreditu gehigarria onartu zuten, eta, horregaz batera, prozedura martxan ipini zuten. Behin hasierako agiriak beteta, lehiaketa publikora aterako dute proiektua, eta gero lanak lizitatuko dituzte. Idoia Buruaga alkateak tramite hauek uda aurretik egi-

tea aurreikusten du. Horren arabera, errugbi-zelaiko harmailak 2020aren amaierarako egon litezke prest.

Lau fasetan egindako lanak

Harmailen lanak lau fasetan egingo den proiektu orokor bati lotuta daude. Lehenengo fasean, San Jose kalea oinezkoiei zabaltu zieten, bigarrenetan eskola azpiko sotoa konpondu zuten, eta orain harmailak egingo dituzte, besteak beste.

Udalaren gobernu plana polemika iturri Elorrion

Azken osoko bilkuran, Idoia Buruaga alkateak esan zuen "herri proiektu" bategaz lanean dabilela orain bost urtetik hona

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Joan zen astean egindako osoko bilkuran, Mikel Arruabarrena EAJren bozeramaileak "hurrengo lau urteetarako gobernu plan bat eratzeko" eskatu zion Elorrioko Udalari, eta, horretarako, partaidetza batzorde bat antolatzeko ere eskatu zion. "Momentu honetan, ez dakigu egiten zabalitzen gauzak burutazioak

gintzaldi amaieran balorazioa egingo zenutela esan zenuten. Baina ez duzue egin", kritikatu zuen EAJren bozeramaileak.

Alkatearen erantzuna

Idoia Buruaga alkateak erantzun egin zion EAJko Mikel Arruabarrenari. "Deigarri egiten zait zuek hau kritikatzeko, horrelako gobernu plan bat osatzen dugun korporazio bakarraga gara eta", esan zuen Idoia Buruagak. Balorazioari dagokionez, eginda dutela adierazi zuen, baina aurrekanpainan sartu zirenez ezin zutela aurkeztu.

Bestalde, orain bost urte herritarrekin batera "haziak erein" zituztela eta ordutik hona "herri proiektu" bategaz lan egiten dutela azaldu zuen alkateak. "Gainera, gogoratu gura dizuet herri programa bategaz aurkeztu ginela hauteskundeetara", amaitu zuen Idoia Buruaga alkateak.

Elorrioko EAJk hurrengo lau urteetarako gobernu plan bat eratzeko eskatu dio udalari

diren ala programa baten barruan sartuta dauden", adierazi zuen. "Bestalde, 2015ean 100 neurri ipini zenituzten Amestutako Elorrio eratzeko, eta lege-



ERAZ.

Hareek denporak!

MIKEL ZARRABEITIARI OMENALDIA 1994an

1994an Mikel Zarrabeitia txirrindulariari omenaldi beroa egin zioten bere herrikideek Abadiñon. Besteak beste, urte horretan bigarren sailkatu zen Espainiako Vueltan, Tony Romingerren atzetik, eta herri-tarrek txalo zaparrada artean hartu zuten Txanporta plazan. Gero, ezpatadantzarien txanda izan zen. Dantzari txapela barik, ezpatadantzariak Zarrabeitiaren peñako biserak

jantzi zituztela ageri da ERAZ aldizkariko kronikan. Ramon Zarrabeitiak, Mikelen osabak, banango zaharra egin zuen, eta Durangaldeko bertsolari gazteez gainera, Toni Atutxak, Luis Berrizbeitiak eta Antton Uriartek bertso bana abestu zuten.

Abadiñoko txirrindulari elkarteak maillota oparitu zion. Omenaldiagaz amaitzeko, lagunarteko afaria egin zuten. J.G.

Durangaldea asteen

Erreferendumaren aldeko sinadura bilketan Elorrio eta Abadiñoko Gure Eskuk

Abadiño/Elorrio | Gure Eskuk erreferendumaren aldeko sinadura bilketa masiboa abiatu du hainbat eragile sozialegaz elkarlanean. Sinadura bilketa horren bitartez, erreferenduma legeztatze eskaria egin gura die erakunde politikoei.

Elorrian, martxoaren 15ean aurkeztuko dute egitasmoa, 13:00etan, plazan. Bestalde, Abadiñon bilera zabala egingo dute, martxoaren 17an. Batzarra 19:00etan izango da, Txanporta Kultur Etxean.

Dagoeneko aukera dago Elorrian antolatu duten Kirol Astean izena emateko

Elorrio | Herriko hainbat kirol taldegaz batera, Elorrioko Udalak Kirol Astea antolatu du apirilaren 14tik 17ra egiteko. Gazte-
txoek kirola praktikatzeko du helburu ekimenak, eta dagoeneko badago aukera izena emateko. HAZen, Iturri Kultur Etxean edo Kiroldegian apuntatu daiteke, apirilaren 1a baino lehenago.

Hondakin organikoa batzen dabilta Durangon, 100 edukiontzi erabilita

Durango | Udalak 100 edukiontzi ipini ditu herrian zehar hondakin organikoak batzeko, eta Alde Zaharrean hondakinak batzeko sistema berria ipini du martxan, bizilagunekin eta merkatariekin hala adostuta. Atzo, martxoak 12, ipini zuten martxan. Edukiontziak erabilita, bilketa "eraginkorragoa" izatea eta birziklatze tasa handitzea dute helburu.



Bartolome Ertzilla kontserbatorioko zazpi piano ikasle saritu dituzte Andoaingo piano jaialdian

Durango | Musika eskolako eta kontserbatorioko zazpi ikasleak saria jaso dute Andoaingo (Gipuzkoa) piano jaialdiaren 15. edizioan. Bertan, Euskal Herri osoko 800 bat ikasleak parte hartu zuten.

Bartolome Ertzillako ikasleak Andoaingo piano jaialdira aurkeztu diren bigarren aldia da aurten-go. Jaialdia otsailaren 8an eta 9an izan zen, eta Oier Callejo, Jone Berrizbeitia,

Ane Martinez, Lide Salaberria, Eider Urigoitia, Kepa Barrientos eta Aiala Irurtia saritu zituzten. Ines Parbole, Mikel Nuñez eta Maria Azurmendi dira euren piano irakasleak.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

C E R A M I C A S
MACOBER

**ZERAMIKA ETA GRESA
DEKORAZIOA ETA APAINKETA
ERAIKUNTZAKO MATERIALA**

1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA *Elorri eta ikusi*

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com

DIBA
K O O P E R A T I B A

**Durangaldeko
Baserritarren
Elkartea**

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92



IURRETA *Tellitu-n*

3 logelatako 6 etxebizitza

2 logelatako 11 etxebizitza

Garajea eta trastelekua barne

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com

Osasun gida

anboto

 **Ginekologia**
PSE: 93/18

 **mam ginekologia zentroa**

 Mikeldi 13, 48200 - DURANGO
T 946 05 53 04
info@mamginekologiadurango.com
www.mamginekologiadurango.com

HITZORDUA ESKATU
674 322 360

 **Fisioterapia**
PSE: 119/13

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

**Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO**

944 657 132 - 686 906 374

 **Fisioterapia**
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

**Muruetatorre, 2D
DURANGO**

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

 **Optometria**
PSE: 162/13

Naia
Zabala
Azumendi
11587 kol. zk.



keinu

- Optimetrian teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoptometriazentroa.com

 **Podologia**
PSE: 148/13

PAUSOZ PAUSO
Podologia
klinika

Goiatz Murua
kol. zbk. 147
Ainhoa Elorza
kol. zbk. 238
Nerea Rodriguez
kol. zbk. 329

Kiropodia, onikopatia, alterazio dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Telefona: 946203630
Monago Torre 4, behea 48200 durango

 **Odontologia**
PSE: 145/13



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA
INPLANTOLOGIA - KIRURGIA
ORTODONTZIA KONBENTZIONALA ETA
IKUSEZINA • ODONTOPEDIATRIA - PADI
HORTZ-ESTETIKA
HORTZ-ESKANERRA

{Muruetatorre, 2C blokea, behea} DURANGO
Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

 **Odontologia**
PSE: 112/13



J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

**Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO**
Tel.: 946 812 200

 **Estetika**
PSE: 16/09

 **AGIRRE KLINIKA**
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticaDurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak... Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

**Txatxiena, 6
48200 - DURANGO**
Tel.: 946 810 387

 **Psikologia**
PSE: 62/11



JON ARRUABARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

 **Pedagogia**
PSE: 63/63

UGATZ

**UMEAREN
GARAPENERAKO ZENTROA**
Laguntza goiztiarra,
psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia

**Juan Olazaran, 1 behea
DURANGO**
ugatz@hotmail.es
944 668 370 - 615 782 090



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

“Urte honetan soinu astunekin eta noise-agaz jolastu gara, era naturalean, horrela irten zaizkigulako kantak”

Bartzelonan bizi den Ane Barcena durangarrak kilometro andana egin du Pinpilinpussies taldeagaz; 'Fuerza 3' diskoa kaleratu dute gaur, Aloudegaz



Raquel Pagès eta Ane Barcena.

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Pinpilinpussies taldea ibilbide meteorikoa edukitzen ari dira. Gaur, martxoak 13, 'Fuerza 3' diskoa kaleratuko dute. Garagearen, rockaren eta punkaren indarra melodia itsaskorrekin batura era-kusten du lanak, berau osatzen duten bederatzi abestietan zehar.

Sasoi betean heldu ziren grabaketara, izan ere, talde gaztea izan arren [2018an sortu zen] 50 bat zuzeneko eskaini dituzte hileotan. Raquel Pagesek eta Ane Barcena durangarrak osatzen dute Pinpilinpussies. Diskoa Aloud Records diskoetxe ezagunagaz kaleratu

dute. Orain, 'Fuerza 3' zuzenean aurkezteari ekingo diote.

2018an berba egin genuenetik, dezente hazi zarete: EP bat grabatu duzue. Lehenengo diskoa kaleratu, eta dozenaka kontzertu eskaini dituzue. Gustura egindako bideagaz?

Pozik gaudela esanda labur geratuko ginateke. Lehenengo EPa grabatu genuenean ez genuen imajinatu etorriko zena; zuzenean pilo bat aritu gara, jende mordo ezagutu dugu... Ikusiko dugu *Fuerza 3* egaz zer gertatuko den, baina, oraingoz, jendea topera dabil kontzertuetan, eta taldeak harrera ona du zuzenekoetan zein prentsaren arloan.

“**Pozik gaudela esanda labur geratuko ginateke; EPa grabatu genuenean ez genuen imajinatu etorriko zena**”

Zein norabide hartu gura izan duzue 'Fuerza 3' diskoagaz? Melodiek pisu handia dute, baina aurrekoan baino distortsio gehiago aurkitu daiteke, eta erritmo astunak ere nabariak dira.

Ez genuen norabide zehatzik marraztu soinu aldetik. Egia da lehenengo EPak pop doinu gehiago dituela, orain urtebete-ko momentua islatzen zuelako. Urte honetan, baina, soinu astunekin eta noise-agaz jolastu gara, gura barik, horrela irten zitzaizkigulako kantak; bion influentziak desberdinak dira. Bigarren anplifikadore bat erosi genuen, eta eboluzio guztiz naturala dela esan genezake.

Zuzenekoetan kanta "zaharrek" ere badute lekua oraindino, eta sonoritate horien guztien batura da gaur egun Pinpilinpussies dena.

Sevillan grabatu duzue, Raul Perezegaz. Zelan?

Bikain! Lau egunean egon ginen bere etxe-estudioan. Leku zoragarria da, eta, gainera, Raulek etxeokak izango bagina lez tratatu gintuen. Pijaman grabatu genituen kantak, literalki. Oso jatorra da, eta profesionalki maisu handia. Kantuak oso prestatuta eraman genituen, baina berak bere *magia* gehitu zien. Errepikatze modukoa izan da, dudarik barik.

Zaila egin zaizue zuzeneko indar hori diskora eramatea?

Ez. Azken batean, diskoak eta zuzenekoak pertsonalitate desberdinak dituzte. Era desberdin bitan disfrutatzeko pentsatuta daude, eta ezin dira biak konparatu. Guk uste dugu diskoan entzuten dena gustuko izanez gero, kontzertuetan oso ondo pasatuko duzula, eta alderantziz, kontzertuan ondo pasatuz gero, diskoa gustatuko zaizula. Energia behar baduzu, goizean goiz *Fuerza 3* ipini, eta etxetik gogotsu irtengo duzu.

Biek bateria jotzen duzue, biek gitarra jotzen duzue, biek abesten duzue. Zelan erabakitzen duzue nork egingo duen zer?

Bakoitzak gitarragaz konposatu dituen kantak jotzen ditugu, gitarragaz eta ahots nagusi moduan. Kanta bat konposatuta dagoenean, idatzi duenak entsegu lokalean jotzen du. Gero, besteak bateria gehitzen dio. Ondoren datoz konponketak, hitzak... Bion artean gorenera eramaten ditugu kantak.

Irudiari ere garrantzia ematen diozue, bai zuzenekoetan, bai

diskoaren edo bideoiklparen diseinuetan.

Hala da. Irudiak inpaktu bat sortzen du eta era askotara laguntzen du. Adibidez, jendeak zure musikari aurpegia edo begiak jartzen dizkiolako, zeuk aukeratutakoak, gainera. Dena norantza berdinean doa. Gainera, Ariadna Schneider Bartzelonako ilustratzaileak [@amerwall Instagramen] kontzertuetako kartelak zein diskoetako artwork guztiak egiten dizkigu. Zorte ona dugu beragaz lan egi-teagatik. Ilustratzaile aparta da! (kuxkuxeatu bere profila).

“**Kantuak oso prestatuak eraman genituen Raul Perezen estudioara, baina berak bere magia gehitu zien**”

Zelan Aloudegaz lanean?

Oso ondo! Aloudeko kideek asko zaintzen gaituzte. Familia txiki bateko parte garela esaten dugu beti. Gainera, balio etiko eta moralak aurretik doaz beti, eta musika industrian ez da beti horrela izaten. Zorte ona dugu Aloudegaz lanean aritzeagatik. **Durango, Elorri eta Berrizen egon zarete kontzertuak eskaintzen. Itzuliko zarete Durangaldera etorkizun hurbil batean?**

Hori gura genuke! Udazkenean estatutik biran ibiliko gara, baina oraindino ezin dugu ezer gehiagorik zehaztu. Ez dut zailtzarik Euskadira bueltatuko garela, asko gustatzen zaigulako bertan jotzea. Oso ondo tratatzen gaituzue, zer esango dizut, ba! (barrez).

uxarte
SAGARDAOGINTZA

Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815
www.uxarte.com

**ZABALIK
OSTIRALETAN ETA
ASTEBURUETAN**

**ASTEAN ZEHAR
ENKARGUZ**
Gutxienez 15
laguneko taldeentzako

2020ko Aste Santuko tailerrak
Programa 2 zatitan bananduta:

Teorikoa: Zaldien ezagutzak, jokabideak, zaldiak gobernatzea, agerraldiak, jolasak...

Praktikoa: Egunero ekitazio-klaseak, ariketa desberdinak

Egunak

Apirila: 7-8-9-10ean / 13-14-15-16-17an
Ordutegia: Goizeko 10:00etatik, eguerdiko 14:00etara
Prezioa: 45€ / eguna.
160€: 1. aste osoa 195€: 2. aste osoa

Zelai Alai
HIPIKA ESKOLA
Zelai Alai Hipika Eskola Iurretza Gaztañatza auzoa z/g 48215 Iurretza - Tel: 691 746 611

www.hipicazelalai.com



Ostalaritza gida

anboto

**Iurreta**



GAUARGI
Dantzari, 4 behe - IURRETA
Gosari bereziak: pintxoak, tostadak eta etxeko bizkotxo eta "Brownie"-ak.
Astelehenetik ostiralera: Menu erdiak 6€-tan. Egunero zabalik. Domeketan eta jaiegunetan rabak.

**Durango**




OLAJAUREGI JATETXEA
Kurutzia Kalea, 52 - DURANGO
Tel.: 946 200 864
www.olajauregi-jatetxea.com
Eguneko menuak, bereziak, taldeentzakoak eta ospakizunak.
Egunero zabalik.

**Durango**



MIKELDI TABERNA
Kalebarria, 7 - DURANGO
Tel.: 944 073 988
Alde zaharrean kokatuta.
Pintxo gozoak eta giro alaia.

**Abadiño**




ABARKETERUENA
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO
Tel.: 944 657 790
Eguneko menuak eta asteburuetakoko menu bereziak. Goizetik pintxoak.
Giro oso ona.

**Durango**



PLATERUENA Kafe antzokia
Landako etorbidea, 4 - DURANGO
Tel.: 946 030 300
www.plateruena.eus
Egunero zabalik. Menu bereziak, egunerokoak, taldeentzakoak eta ospakizunak.



Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!



MUSIKA • IGOR GALARZA

Joseba Baleztena musikariak *Instroak Vol.3* disko berria aurkeztuko du Durangoko Plateruena kafe antzokian. Dokumental baterako musikatik eratorritako diskoa da.

Zer gogoz zaudete gaurko kontzerturako?

Gogotsu gaude Plateruenara begira. Diskoagaz oso kontzertu gutxi egin behar ditugu, eta horietariko bat Plateruenean izateak poza ematen dit. Orain pare bat hilabete eskaini genuen lehenengo aurkezpen kontzertua, eta eguaztenean izan genuen bigarrena. Durangoa hirugarrena izango da, beraz.

Zerk bereizten du azken diskoa aurrekoetatik?

Desberdintasun nagusia da enkarigu baten bitartez sortu zela. Pelikula bati musika ipintzeko aukera izan dut. Normalean, diskoak egin ditudanean, bere osotasunean

“*Instroak Vol.3* aurreko diskoak baino hausnartuagoa eta borobilagoa da”

hartzekoak ziren. Aldea da orain ikus-entzunezko bati laguntzen diola. Horrez gainera, lehenengo diskoak inprobisatuagoak ziren, etxean egindakoak, eta ez horren anbiziotsuak. *Instroak Vol.3*, oster, hausnartuagoa eta borobilagoa da, alde guztietatik.

Zergatik erabaki zenuen disko osoan letrarik ez izatea?

Dokumentalak hori eskatzen zidan. Pentsatu nuen koro batzuk sartzea abestietan, baina ez nituen beharrezko ikusten. Dokumentalean agertzen ziren elementuak baliatuz abesti bat egitea ere pentsatu nuen, baina estetikoki ez zeukan koherentziarik.

Zelan sortu zen dokumentalari musika ipintzeko aukera?

Larraitx Zuazok musika lantzeko deitu zidan. Aurreko diskoak gustatzen zitzaizkion, eta erritmoa markatzeko zein inspirazio lez erabiltzen zituela esan zidan.

“Diskoak sormenaren munduagaz berriro hartu-eman izaten lagundu dit”

Joseba Baleztenak 'Instroak Vol.3' diskoa aurkeztuko du Plateruena kafe antzokian



Joseba Baleztena Lenoir

Joseba B. Lenoir Gang taldeko abeslaria
Bera | 1984

JON IRAUNDEGI.

“Eza zait gustatzen musika hartzan ari den bidea. Kontzertuek balioa galtzen dute”

Orduan, elkarlana egitea eskaini zidan.

Zelakoa izango da Durangoko ikuskinazuna?

Talde osoa joango gara. Dokumentala elkarlanean estreinatu ondoren, Larraitxek eta biok muntaia alternatiboak egitea pentsatu genuen, nire abestiekin batera proiektatzeko.

Ez da dokumentala bera ikusiko, grabazio zatiak abestietara moldatuta baino.

Sorkuntza krisialdi bat igaro omen duzu.

Musika ez dut inoiz utzi, baina krisialdi hori izan dut, bai musikari lez, bai musikazale lez. Eta ez dudala guztiz gaintitu esango nuke. Diskoak sormenaren munduagaz berriro hartu-eman izaten lagundu dit. Nire planen barruan ez zegoen diskorik egitea, inondik inora. Larraitxek deitu zidanean, aste bi neramatzan musika aparte uzteko erabakia hartuta. Ez nuen nire izenpean musikaririk egin gura.

Musikatik aldenduta egon gura zenuen, beraz.

Ez zait gustatzen musika hartzan ari den norabidea. Ematen du zerbait saldu edo erakutsi behar dugula denbora gutxian. Kontzertuek balioa galtzen dute. Horrez gainera, nostalgiara jotzeko joera handia ikusten dut, joandako garaiei begira egotekoa, zaleen zein musikariren aldetik.

Zer egiteko asmoa duzu gerora?

Musikarako grina ez zait hain erraz itzaltzen. Oso pozik nago kontzertu hauek prestatzeko batu naizenekin. *Instroak Vol.3*-ren aurkezpena itxi eta banda formatu honegaz, beste disko bateguz lanean hasteko gogoz nago.

Gai librea

Garazi Mugarza Markina
Erizaina



Neurosia

Halako atarramendurik! Jen-dea espantuka darabilzu, neurosiak jota! Inongo kontesturik gabe zure aire-eraso umelek eragindako heriotzak etengabe zenbatzen guztiz izuturik, supermerkatuetako kontserbak agortzen batzuk, eskugainetako azal zartatuak alkoholez babesten edo zaintza lanak delegatzen besteak. Eta eba-kuazio planak prest agertuko bazina metro karratu gutxitan egonaldi behartu bat egiteko. Badaezpada, ze gure aseguruek ez dute halakorik ordaintzen.

Lehen ere erraza ez, eta are zailagoa da orain elkarrengana arrimatzea. Metro bateko distantziaren aitzakiaz, azal-keriaz eta urrunetik agurtzen dugu elkar, eta beti bezala, itxurak salbatzen gaitu. Baina aldi berean, bada halako gorraize bat... zaratarra ohituta-koan isiltasuna entzuten dute batzuek.

Ez nuen uste horren urduri jarriko ninduzunik, oraindik ez didazu esan zertara etorri zaren. Zer zara zu, kausa ala kasualitatea? Badakit gertu zaudela, hor nonbait, erdi gordeka. Hartutako neurri guztiak gaintitzeko gai zarela demostratu arte ez zaizu komeni non zbiltzan esatea. Era masiboan sukarrarazi arteko bakerik ez daukazu, non agertuko ote zara hurrengo...

Freudek esan zuen, anbigua den edozer jasateko ezintasuna dela neurosi guztien oinarria. Ni ere ez naiz oraindik zuri aurrez aurre begietara begiratzen ausartzen, eta joan egin nintekeen baina hemen gelditzea erabaki dut nire eskullarru, maskara eta distantziak hartuta. Gauza bakarra egin nezake neurosi hau baretzeko: amore eman eta bila nazazun utzi.

Smurfit Kappa
Central Forestal

50 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAINTZEN

Smurfit Kappa
Nervión



Gremioen gida

anboto

 **Zurgintza**

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

 **Iturgintza**

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Instalatzailer baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

 **Iturgintza**

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

 **Iturgintza**


Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

 **Iturgintza**

ALDEKOA-OTALORA
iturgintza

BEROKUNTZA - AIREA - GASA
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaotalora.com

Zustaurte, 8 IURRETA
946 202 768

Arzubia 10 B Industrialdea, 13-14 pabiloak ABADIÑO
944 071 791 - 692 859 779

 **Zurgintza**

ATERPE AROZTEK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

 **Dekorazioa**

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 753 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**





Markel Areitio Cedrun
Izarra taldeko atezaina Bigarren B Mailan
Iurreta | 1996

“Oso gustura nago kideekin eta klubagaz. Izarrara heldu naizenetik, partidu guztiak jokatu ditut”

Bere ibilbideko unerik gogorrena gainditu eta gero, Markel Areitio ilusioz dabil Lizarrako Izarra taldean. Klubera batu denetik, partidu guztiak jokatu ditu eta geldiketa bikainak eginda itzuli dio taldeari beragan jarritako konfiantza

geratu zen. Une zail hori gaindituta, etapa berri bati ekin dio Lizarrako Izarra klubean, Bigarren B Mailan.

Iazko uda gogorra izan zen zuretzat. Bai. Iazko udan, Eibarretik irten eta gero, talderik barik geratu nintzen. Sasoiari eusteko, Durangoko Kulturagaz entrenatu nintzen. Fitxaketen merkatuko lehenengo egunean Izarra taldeko presidenteak deitu, eta ekainera arte klubera batzea eskaini zidan. Segituan heldu ginen akordio batera. Nahiko arin gertatu zen dena. Egun batetik besterako kontua izan zen.

Unerik zailenetan ikasten da gehien? Talderik barik egon nintzen momentu hori oso gogorra izan zen niretzat, batez ere psikologikoki. Aste barruan Durangoko Kulturagaz entrenatzen nintzen arren, asteburuan partidurik ez badago ez daukazu motibazio edo ilusiorik. Aste barruko entrenamenduak

gero, Eibarrera jo zuen eta haren filiala den Vitoria taldeagaz ibili zen. Debuta ere egin zuen Eibarren talde nagusiagaz. Iazko udan, bere ibilbidean lehenengoz, talderik barik

asteburukoa ahalik eta ondoen prestatzeko izaten dira, baina hori falta denean... Baina, tira, zuk diozun moduan, horrelako egoerak ikasteko dira eta esperientzia horretatik lehen baino indartsuago irten dudala uste dut.

Zelan doa denboraldia Izarra taldeagaz?

Egia esanda, oso gustura nago, bai kideekin, bai klubagaz. Hara heldu, entrenamendu bat egin eta hurrengo egunean jokatzeko hasi nintzen. Heldu naizenetik, partidu guztiak

“**Talderik barik egon nintzen momentua oso gogorra izan zen niretzat, batez ere psikologikoki**”

jokatu ditut.

Zelako garrantzia du konfiantzak jokalar baten errendimenduan?

Handia. Lehenengo eta behin, argi dago norberak irabazi behar duela besteen konfiantza hori. Azkenean, jokalar batek jokatu egin gura du eta ez dago jokatzearen parekorik norbere buruan konfiantza lortzeko. **Taldea bera, Izarra, sufritzen dabil Bigarren B Mailan. Jaitziera postuan zaudete orain. Itxaroten zenuten egoera da?**

Izarra klub xumea da. Aurrekontuari begiratu gero, urrun dago beste talde askorengandik, baina dena ez da dirua. Beste faktore batzuk ere badaude. Gure indarguneetariko bat taldeko giro ona da, eta hori gakoa izan daiteke mailari eusteko borrokan.

Azken txanpan erabakiko da dena.

Bigarren B Mailako gure multzoa oso parekatua da. Hamar talde sei punturen barruan gaude behealdean, eta oraindino 30 puntu gertatzen dira jokoan. Beraz, hemen azkenera arte gauza asko gertatu daitezke.

Orain asteburu bi Cultural Leonesa taldearen zelaira egindako bisitan, sekulako geldiketarik egin zenituen eta klubak zure lana goraipatu zuen sare sozialetan. Egun inspiratua izan zenuen.

Atezain batek lan asko izatea ez

da sintoma ona izaten normalean, baina horretarako gaude, taldeak behar gaituenean laguntzeko. Nire lanagaz gustura nago, bai. Gainera, taldeak puntu bat batzeko balio izan zuten geldiketarik. Leon goiko postuetan dabil [sailkapeneko bigarrena da] eta ez da erraza zelai hartan puntuak batzea.

Zelakoa da bizimodua Lizarran, hala-ko herri txiki batean?

Lasaia. Beste lagun bigaz bizi naiz. Orain arte Magisteritza ikasketak amaitzen ibili naiz. Arratsaldeetan lanpetuta ibili naiz. Orain, ikasketak amaituta, denbora gehiago izango dut.

Lezaman urte dezente eman zenituen eta bertatik bertara ezagutzen duzu atezainekin egiten duten lana. Kepa Arrizabalaga Chelsean dabil, Unai Simon maila handia ematen ari da Athleticen. Zein da sekretua?

Lezaman asko lantzen dute atezainen teknika, txiki-txikitatit, eta oso entrenatzaile onak daude. Hala ere, azken urteetako uzta harrigarria da: Kepa Arrizabalaga, Unai Simon... Begira Aitor Fernandez ere, Lezamatik irtenda, oso ondo dabil orain Levanten. Lezaman urte asko daramatzate goi mailako atezainak ateratzen, eta hori ez da kasualitatea. Ondo egindako lanaren isla dira.

“**Lezaman urte asko daramatzate goi mailako atezainak ateratzen, eta ez da kasualitatea**”

Andoni Cedrun atezain ohia osaba duzu eta berea aita, Karmelo, Athleticetako atezain mitikoa izan zen. Etxetik datorkizu afizioa?

Txikitatit jakin dut nortzuk ziren. Hori bai, atezain izateko afizioa norberak izan behar du eta niri betidanik gustatu zait. Karmelok beti esan izan dit gogor entrenatzeko eta borroka egiteko gura nuen hori lortzeko.



Partidu biren faltan, Durango Nissan Gaursak bere esku du liga irabaztea

Joan zen asteburuan La Unica liderra menderatuta, Durango Rugby Taldeko gizonek aginte makila eskuan dutela egingo diote aurre Euskal Ligako azken txanpari



Durango Nissan Gaursak eta La Unicak Arripausuetan jokaturako neurketako une bat. PEDRO MORENO

ERRUGBIA • JOSEBA DERTEANO

Joan zen asteburuan, Euskal Ligako talde bi onenek indarrak neurtu zituzten Arripausuetan, eta nor-gehiagokak ez zuen inor epel utzi. Asko zegoen jokoan. Irabazleak liga irabazteko abantaila hartuko zuen, eta galtzailea beste emaitzen mende geratuko zen. Partidu estu eta borrokatua izan zen, eta, azkenean, durangarrek irabazi zuten: 15-13. Emaitza horri eskerrak, eta amaie-

Partidu estu eta borrokatua Durango Nissan Gaursak 15-13 menderatu zuen La Unica

DRTk Gernika-Arratia eta Bera Bera B taldeen kontra jokaturako ditu azken partidu biak

rarako jardunaldi biren faltan, Durango Nissan Gaursak bere esku du Euskal Liga irabaztea. Gernika-Arratiko eta Bera Bera B taldeen aurkako partiduak falta zaizkio.

Bestalde, maila berean dabilen Elorrio Parra Taberna seigarren tokian dago sailkapenean. Asteburuan Domiberia Errioxa taldearen kontra jokaturako du.



Paul Arginzoniz durangarra Euskadiko txapelkun geratu da kickboxingean

KICKBOXINGA • J.D.

Xsport eta Team Laureano taldeko borrokalariek 18 domina eskuratu dituzte Euskadiko Kickboxing txapelketan. Nagusietan, Paul Arginzoniz 20 urteko durangarrak urrezko domina eskuratu du eta Xabi Sierra eta Alazne Murgoitio elorriarrak azpitxapelkun geratu dira.

Gazte mailetan, Laila El Hayani elorriarrak, Dani Calvo durangarrak, Iker Sanz berriztarrak eta Ibai Martin zaldibartarrak irabazi dute txapelketa. Larisa Tertis elorriarra, Ander Sanchez berriztarra, Unax Loura elorriarra eta Xabi Zabala durangarra azpitxapelkun gertatu dira. Nahia Buruagak brontzeko domina eskuratu du.

Asteko kirolaria



IERAY GALTZAGORRI ULI

Durango, 1984

Abadiño Xake Taldea Euskadiko Ohorezko Mailara igo zen joan zen asteburuan. Lorpen horren meritua Ibon Martinek, Alain Prietok, Jon

“Talde nagusira batzeko erabakia hartu badut, bertan lagunak ditudalako izan da”

Aspaldiko partez, Ieray Galtzagorri Abadiño Xake Klubeko lehenengo taldeagaz aritu da aurtan

Lagosek eta Ieray Galtzagorrik osatutako taldearena da. Galtzagorri talde nagusira bueltatu da, urte batzuetan erretiratuta egin ondoren. Bere ekarpena garrantzitsua izan da mailaz igo ahal izateko.

Pozik zaude igoeragaz?

Bai, mailaz igotzea zen asmoa eta lortu dugu. Klubarentzat albiste ona da. Uste dut liga txukuna egin dugula denok.

Zu zeu, zelan sentitu zara?

Hasieran ez nuen talde nagusian aritu gura, baina jendea falta zela eta konbentzitu ninduten eta behin dinamikan sartuta gustura aritu naiz.

Erretirotik bueltatu zara.

Iaz bueltatu nintzen, baina ez talde nagusira. Gazteei tokia utzi behar zaie, eta, gainera, ez nuen erantzukizun hori gura. Kontuan hartu bederatzi urte nituenetik

nabilela xakean. Denerik bizi izan dut, bolada onekin, bolada eskasekin, beste bolada batzuetan xaketik desagertuta... Nik maila denetan jokatu dut Abadiñogaz, hara eta hona ibili naiz, makina bat txapelketa jokatu dut... Esperientzia handia hartu dut 24 urtean. Kirol batean hainbeste urtean zabilazanean, ez da erraza motibazioa bilatzea. Berez, orain-txe bertan, nire asmoa hurrengo

denboraldian talde nagusian ez jarraitzea da, edo behintzat ez dut argi zer egingo dudun. Ikusiko dugu denbora apur bat pasatzen denean zelan sentitzen naizen.

Konbentzitzen ahaleginduko dira. Dena beharko da Euskadiko maila gorenean lehiatzeko.

A, bai, seguru, urteroko kontua da. Ikusiko dugu zer gertatzen den. Azkenean, urteetan aurrera egin ahala beste ardura batzuk sortzen dira eta beste interes eta ilusio batzuekin zabilaz. Talde nagusira batzeko erabakia hartu badut, bertan lagunak ditudalako izan da. Lagunekin jarraitzea bada arrazoi bat talde nagusian aritzeko; lehiak berak ez nau hainbeste erakartzen.



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA • INPLANTOLOGIA - KIRURGIA
ORTODONTZIA KONBENTZIONALA ETA IKUSEZINA • ODONTOPEDIATRIA - PADI
HORTZ-ESTETIKA • HORTZ-ESKANERRA

{ Muruetatorre, 2C blokea, beheka - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

Ainara Urreta Jainaga
OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 beheka - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

Gisasolak 23 urtez azpiko Urrezko Aizkora irabazi du; Magunazelaia azpitxapeldun harrijasotzaile txapelketan

Sei urtean harririk altxatu barik egon eta gero, Urdax Magunazelaia abadiñarra txapelketara itzuli zen otsailean. Joan zen asteburuan Azpeitian jokaturako Urrezko Harrijasotze txapelketan azpitxapeldun gelditu zen, Xabier Peñaren atzetik

HERRI KIROLAK • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Asteburuan, Urrezko Aizkora eta Harrijasotze txapelketako finalak jokatu zituzten Azpeitian, eta Durangaldeko kirolari bik parte hartu zuten bertan. Ioritz Gisasola mallabitarra izan zen lenenengoa parte hartzen. Zelai IV.ak 23 urtez azpiko mailan parte hartu zuen, Suhari Rodriguez hernaniarragaz batera. Zelai IV.ak eta Suhari lehia estua izan zuten Julen Larrea eta Jokin Urretabizkaia bikotearen kontra, baina, azkenean, 8 segundoko aldeagaz irabaztea lortu zuten. "Oso pozik nago Azpeitian egin genuen lanagaz. Kanporaketan denborarik onena egin genuen eta dena emateko asmoagaz joan ginen finalera. Azkenean, txapela etxeratzea lortu genuen", adierazi zuen Gisasolak.

Magunazelaia, ostera, gutxi-gaitik ez zuen txapela irabaztea lortu. Xabier Peñak baino jasoaldi bat gutxiago egin zuen. "Lan polita egin nuela uste dut, nire aldetik dena eman nuen eta publikoak

gozatu zuela uste dut", esan zuen Magunazelaia.

Abadiñoko harrijasotzailea sei urteren ondoren itzuli da txapelketara aurten, eta harria jasotzen "gozatzea" du helburu. Hainbat

marka egindakoa da mutikotan. Azpeitian, sasoi betean itzuli dela eta, nahiz eta aspaldi harririk altxatu ez, ez duela teknika galdu erakutsi zuen. Txapelketa amaitu eta gero, ANBOTOri azaldu zion

"goia jo arte" jarraitzeko asmoa duela. "Orain ez daukat gelditzeko esperantzarik, gorantz egin behar da, suziri baten moduan, eta goia jo arte jarraituko dut", gaineratu zuen Magunazelaia.



Ioritz Gisasola eta Urdax Magunazelaia, Azpeitian.

PILOTA • J.D.

Durangaldeko pilota klubak ez dira askorik nabarmendu Euskal Herriko Kluben arteko Pilota Txapelketan. Joan zen asteburuan jokaturako 20 finaletatik, Zornotzako Lagun Onak kluba baino ez zen heldu finalerik batera, eta bertan, gazte mailako binakakoan, Xabier Beitiak eta Aimar Morgaetxebarriak txapela eskuratu zuten.

Lorpen handia da Zornotzako klubarentzat, aspaldian garaipenaren gozoa dastatu barik zeudelako klubaren artekoan. Azkeneko txapela orain 18 urte lortu zuten, nagusien mailan eta binaka, Andoni Eguskizak eta Mikel Inunziagak osatutako bikoteari eskerrak.

Gainera, joan zen asteburuko finala Zornotzan jokatu zuten,

Beitia eta Morgaetxebarria gazte mailako txapeldun Lagun Onak klubagaz

Zornotzako Lagun Onak taldea 18 urtean txapelik irabazi barik zegoen Euskal Herriko klubaren artekoan; Zornotzan jokaturako finalean aurkariak baino askoz gehiago izan ziren

Amorebieta IV pilotalekuan, eta klubak herriko zaleekin ospatu ahal izan zuen garaipena. Beitia eta Morgaetxebarria Astigarragako Mundarro klubeko Lizeaga anaiak baino askoz gehiago izan ziren. Azken emaitzak garbi erakusten du kantxan ikusitakoa: 22-8.

Morgaetxebarria Mallabiko Biharko Izarrak txapelketan ere badabil. Orain arte partidu bat jokatu eta bera irabazi egin du pilotari zornotzarrek.



Plazan egurrezko estaldura bat jarriko dute, besteak beste.

Jokaldia

June Arbo
Sarriugarte
Atletismoa



Denboraldi amaiera

Joan den asteburuan bukatu nuen nire zortzigarren denboraldiko negua. Modu berezian eta aldaketaz beteta hasi zen 2020. urteko neguko denboraldia ez da nik nahi bezain maila onean bukatu, baina bai modu berezi eta politean niretzat. Igandean, Euskadiko Selekzioarekin nire seigarren Espainiako kros txapelketan parte hartu nuen Zaragozan, horrek dakarren guztia erekin.

Askotan, emaitzekin itsuturik, ez gara benetan garrantzitsuagoak diren gauzez jabetzen. Beste urte batez, Euskadiko selekzioa kamiseta jantzita korrika egiteko aukera izatea ez da denon eskuetan dagoen zerbait; horregatik, lehenengo aldian bezain berezia izaten jarraitzen du. Aspaldiko jendearekin elkartu, txikitatik lasterketetan animatu zaituen jendea ikusi, aurpegi berriak ezagutu... Eta azken finean, Euskal Selekzioa ahalik eta posturik hoberenean uzteko gogoak batzen gaitu asteburu oso batez. Nahiz eta 23 urtez azpiko mailan selekzioak lortutako 8. postuak azken urteetako emaitzetatik urrun uzten gaituen, taldekide guztien lana eta esfortzua goraiatzeara nahiko nuke; kontuan hartuz askorentzat selekzioa ordezkatu duten lehen aldian izan dela.

Lasterketa ez da izan egin dudan onenetarikoa, baina Euskadiko lehenengo bi postuak Aritz Villak (20. postua) eta nik (18. postua) lortu genituen, lasterketa guztian zehar elkarri lagunduz, eta, beste behin ere, kirol indibiduala den hau taldeko kirol bilakatuz. Askotan, egindako lan onaren emaitzek denbora behar izaten dute iristeko, eta beraz, asteburu honetatik, hemen idatzitako momentu eta jendearekin gelditzen naiz, emaitzak urteekin ahaztu egiten baitira.

Bulegorako zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografía

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

keinu
OPTOMETRIA ZENTROA
PSE: 162/13

Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Jokabide optometria
- Haurren ikusmena
- Ikusmenaren entrenamendua
- Jatorrizko erreflexuak
- Fototerapia optometrikoa
- SENA entzumenaren estimulazioa
- Kirol ikusmena
- Garuneko lesioak
- Orto-k eta miopiaren kontrola

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoptometriazentroa.com

hitz
liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#salduenak

MIÑAN
Arnets Arzallus & Ibrahim Balde (Susa)

AITAREN ETXEA
Karmele Jaio (Elkar)

AIREA EZ DA DEBALDE
Joseba Sarriónandia (Pamiela)



ETXETXO

G. INMOBILIARIA

F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO

www.inmoetxetxo.com



AMBOTO

INMOBILIARIA

Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



Inmobiliaria

del Duranguesado

Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666

www.inmoduranguesado.com

inmoduranguesado@gmail.com



AGENCIA INMOBILIARIA

Fernando Uribe

Barrenkalea, 15 behe • DURANGO

Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

ERMODO: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela terrazagaz. 21 m²-ko ganbara. Garaje itxia. C.E.E=E 290.000 €

TABIRA: 3 logela, komuna, sukalde handia eta egongela terrazagaz. Ganbara. C.E.E=F 200.000 €

ZALDIBAR: Euskal Herria kalea. Berriztatua. Trasteleku handia. Eguzkitsua. Bizitzen sartzeko moduan. Ikuspegiak. C.E.E=F 115.000 €

AMILBURU PLAZA: 111 m². 3 logela, 2 komun, sukaldea terrazagaz eta egongela handia. Ganbara eta garajea. C.E.E=E 265.000 €

DURANGO: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. 115.000 €

KURUTZIAGA: 3 logela, komuna eta sukalde-jangela. Terraza. Igogailua. C.E.E=E 140.000 €

//AUKERA

KURUTZIAGA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. C.E.E:E 140.000 €

KIRIKIÑO: 3 logela. Trastelekua. Berriztatua. C.E.E:F 115.000 €

AUKERA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Garajea. C.E.E:G 93.000 €

IURRETA: 3 logela. Terraza. ESTREINATZEKO. C.E.E:E 97.500 €

ZALDIBAR: 3 logela. Garajea. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea. Berriztatua. C.E.E:G 98.000 €.

ATXONDO: 85 m². 3 logela, komuna eta egongela. 2 terraza. 18 m²-ko lonja. C.E.E:E 148.000 €

//PROMOZIO BERRIA

ZALDIBAR: 2 eta 3 logelakoak. 115.000 €-tik aurrera BEZ-a barne.

DURANGO: Santa Ana. 1,2 eta 3 logelakoak. Komuna. Trastelekua aukeran. 170.000 €-tik aurrera.

DURANGO: San Roke. Etxebizitza paregabeak. Garaje plaza bi dituzte denek. C.E.E:D 175.000€-tik aurrera. BEZ-a barne.

//ETXEBIZITZAK SALGAI

ARTEKALEA: 83 m². 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Igogailua. C.E.E:E 155.000 €.

ASKATASUN ETORBIDEA: 2 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Garajea eta trastelekua. 237.500 €

MATIENA: J.A. UNZUETA: 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta despentsa. Terraza. 2 igogailu. Trastelekuak. C.E.E:E 145.000 €

TABIRA: Etxebizitza altua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea aukeran. C.E.E:E 200.000 €.

MIKELDI: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. C.E.E:E 170.000 €.

ZEHARKALEA: Guztiz jantzia. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. C.E.E:F

EUBA: Berriztatua. 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. C.E.E:E 147.600 €

IURRETA: 111 m². 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela handia. 12 m²-ko terraza. Trastelekua eta garajea. C.E.E:E 265.000 €

FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 110 m². 2 komun. 2 terraza. 8 gela ditu eta ezin hobe da ofizinak, bulegoak edo akademia bat egiteko. C.E.E:F 216.000 €

ALDE ZAHARRA: Etxebizitza altua. 2 logela, egongela, sukalde-jangela eta despentsa. Igogailua. Berriztatua. C.E.E:E 185.000 €

BERRIZ: Bidegain. 3 logela, 2 komun, eskegitokia, sukaldea eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. Ganbara eta garajea. C.E.E:F 220.000 €

MATIENA: 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Ganbara. C.E.E:E 167.000 €

ABADIÑO: Familia bakarra. 484m². 1.000 m²-ko lursaila eraikitzeo aukeragaz. C.E.E:G 325.000 €.

KURUTZIAGA: 80 m². 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Ganbara. BERRIZTATUA. C.E.E:G 186.000 €.

GAZTELUA: Lursaila. 26.044 m². 6 partzelatan banatua. Fruta-arbolak ditu (600 sagarondo, zenbait partzelatan).

//ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Askatasun Etorbidea. Etxebizitza ederra. 135m². 4 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiagaz eta egongela. Garajea eta ganbara. Argitsua.

DURANGO: Askatasun Etorbidea. Berriztatua. 3 logela, 2 komun eta sukalde-egongela. Balkoia.

DURANGO: Antso Estegiz. 3 logelako pisu ederra. Sukalde berria, komuna eta egongela. Ikuspegi ederrak.

DURANGO: Eraiki berria, 2 eta 3 logela. Azkeneko 3 etxebizitzak salgai. 178.000 €-tik hasita.

DURANGO: Komentukalea. 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Eguzkitsua. Igogailua eta gasa. 150.000 €.

DURANGO: Jose Miel Barandiaran. Etxebizitza ederra. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Garajea eta trastelekua. Durango erdian.

DURANGO: Komentukalea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. Ikuspegi ederrak.

DURANGO: Hegoalde kalean. Eraikin txikia. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobe.

BERRIZ

ELIZONDO ETXETALDEA: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

ZALDIBAR: 3 logela, bainugela, sukaldea eta egongela balkoiagaz. Berriztatua. Trastelekua.

//LURSAILAK SALGAI

DURANGO: 2.360 m²-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Zarratua eta zuhaitzekin. Eskaintza paregabea.

GAZTELUA: 10.000 m²-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

ABADIÑO: 1.000 m²-ko lursaila salgai. Bifamiliarra eraikitzeo baimenagaz. Zonalde egokia.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

ABADIÑO: Bifamiliarra eraikitzeo lursaila, 1.000m². Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. EUBA: Txalet bifamiliarra eraikitzeo lursaila. 3.000 m²-ko lursaila.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserrria salgai. Herrian bertan. 3.000 m²-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO: Aldape auzoa. Baserrria berriztatzeko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 125.000 €

ATXONDO: Baserrri ikusgarria Martzaa auzoan. 15.000 m²-ko lursaila. Teilatua berriztuta. Zonalde egokia.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Baserrri bifamiliarra. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Eraikin txiki ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreintatzeko.

BERRIZ: Baserrri ederra, Murgotioko zonaldean. 3 hektareako lursaila.

//BULEGOAK ALOKAIRUAN

ABADIÑO: 40 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

DURANGON: Garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIRUAN

ALDE ZAHARREAN: Hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460 m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com



IURRETA

2 komun

110 m²

IURRETA: 3 logela, egongela, sukaldea eta terraza. Gas naturaleko berogailua. Igogailua. Garajea eta 8m²-ko ganbara velux eta guzti.

265.000 €. C.E.E:E



BERRIZ

89 m²

BERRIZ: 89 m². 3 logela, egongela handia, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. Guztiz jantzia.

232.000 € C.E.E



DURANGO

2 logela

18 m² garaje itxia aukeran

DURANGO: Goienkalea. Egongela, sukalde jantzia, despentsa eta komuna. Fatxada, patioa eta teilatua oraintsu eginda.

214.900 €. C.E:E



DURANGO

4 logela

93 m²

ERRETENTXU: 93 m². 4 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Balkoia. Gas naturaleko berogailua. Igogailua.

190.000 €. C.E:E



IURRETA

3 logela

77,58 m²

IURRETA: 77,58 m². Egoera onean. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. 2 balkoi. Berogailua. Igogailua. Guztiz jantzia.

174.500 €. C.E:bidean



DURANGO

3 logela

60 m²

SAN FAUSTO: 60 m². 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Trasteleku txikia. Igogailua jartzeko aukeragaz.

95.000 € C.E:G

//DURANGO

ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **160.000 €** / E.E.Z=E

ERRETENTXU: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. **190.000 €** / E.E.Z=E Garaje itxia aukeran.

KOMENTUKALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Igogailua. **160.000 €**/E.E.Z= G

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeo 600m²-ko lurzorua. **640.000 €**

SASIKOA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Garajea eta ganbara. **270.000 €** / E.E.Z= E

TXATXIENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua. **390.000 €** / E.E.Z=E

//ABADIÑO

ZELETABE: 3 logela, egongela, sukaldea, 3 komun, terraza, garajea eta trastelekua. LEHEN 342.576 € / ORAIN **278.000 €** /E.E.Z=E

//BERRIZ

BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **120.000 €** / E.E.Z=F

ERROTATXO KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. LEHEN 95.000 € / ORAIN **85.000 €** E.E.Z=E

ERROTATXO KALEA: 2 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela eta komuna. **100.000 €** / E.E.Z=G

LEARRETA MARKINA: 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. **102.000 €** / E.E.Z=E

SARRIA AUZOA: Baserrria 4.000 m²-ko lursailagaz. **400.000 €** / E.E.Z=E

//IURRETA

AMILBURU MUSIKARIEN PLAZA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Ganbara eta garajea. LEHEN 276.000 € / ORAIN **265.000 €** E.E.Z=E

//MATIENA

TXINURRISOLO: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta bainugela **200.000 €** / E.E.Z=F

//OTXANDIO

ELIZABARRI: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta lonja **106.000 €** / E.E.E=F

OLETA AUZOA: banakako etxebizitza. 460 m² 3 solairutan banatuta. 4 logela, egongela, sukaldea eta 3 komun. Garajea eta txokoa. 5.000 m²-ko lursaila. **480.000 €**/ E.E.Z=E

//MAÑARIA

ARRUETA AUZOA: Etxebizitza bitan banatutako baserrria lursailaz. **220.000 €**

//ZORNOTZA

SAN PEDRO KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta komuna. Garajea eta ganbara. LEHEN 170.000 € / ORAIN **160.000 €** E.E.Z=Bidean

//BERRIAK

//BERRIZ

MURGOITIO AUZOA: Etxebizitza bitan banatutako baserrria lursailaz. **290.000 €.**

//DURANGO

ASKATASUN ETORBIDEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara. Garajea. Igogailua. **237.500 €**/ E.E.Z=E

Eguazteneko
17:00ak arte
jasotako iragarkiak
bariku horretako
alean argitaratuko
ditugu. Geroago
jasotakoak
hurrengo alean



- HIGIEZINAK
- TEKNOLOGIA
- LANA / NEGOZIOAK
- DENERIK
- IBILGAILUAK
- HARREMANAK
- AISIA / KIROLA
- FAMILIA / ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzat. Erregistratu www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta ipini zure iragarkia (paperean agertzeko, herria aukeratzekoan Durangaldeko herri bat ipini).

Paperean, ordainduta: Enpresentzat. Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kotsultatu 94 621 79 02 telefonoan.

DENERIK
Hizkuntzen testu liburuak salgai berri-berri. Frantseseko TOTEM 3 liburua eta ariketen kuadernboa 25 euro. Open Mind British edition Advanced 20 euro. Gateway B2+ Teacher's Book with Test CD 20 euro. Etnologiaren nozio giltzarriak 25 euro. Reading for advanced 12 euro. Total English Intermediate 25 euro. Rond point A1 eta A2 euro bakoitza. Tel.: 678 12 77 16

GAINERAKOAK
Oilarra salgai: Euskal oiloa Zilarra arrazakoa. Oilotokiko oilarra aldatu beharra daukagunez, oilarra saltzen dugu: 655 06 67 84

Arratoi-txakurrak oparitzen dira. Arratoi-txakurrak oparitzen dira. Oso txikiak dira, baserrian jaiotakoak. Otsailaren 8an 2 hilabete egingo dituzte. Tel.: 610 90 21 41

Etxea/k egiteko larrea salgai. 9 Ha-tako larrea salgai 2 etxebizitzako etxea edo batekoa egiteko baimenagaz, Unsaegi, Bolibarren (Trabakutik 15 minututara) Tel.: 691 40 50 17

Gurpildun aulkia salgai. Gurpildun aulkia salgai, 2 antieskara kuxinekin. Tel.: 666 41 33 85

Pertsonak altxatzeko garabia salgai. Pertsonak altxatzeko garabia saltzen dut, bi arnesekin. Tel.: 666 41 33 85

Baserriko harlauzak. Baserriko harri losak salgai, tamaina ezberdinetakoak. Tel.: 690 31 46 45

Trikitixa salgai. Trikitixa salgai Paolo markako 500€. Tel.: 636 22 07 96

ETXERAKO TRESNAK/ALTZARIAK
Ecofit plus ohe artikulatua salgai. Zurezko ohe artikulatua salgai, somier eta koltxoigaz. Gaixo eta mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzat egokia. Egoera oso onean. Argazkiak whatsapp bidez. Tel.: 675 71 34 01

Baby Jogger City Elite aulkia salgai Salgai Baby Jogger City Elite aulkia. Oso egoera onean. Neguko eta udaberriko zakuekin 300 eurotan. Tel.: 623 18 37 93

GARAJE/TRASTEROAK
Garaje-plaza salgai Durangon. Alde Zaharretik oso hurbil (Antso Estegiz Zumardia kalea, 4). Neurri ertaineko kotxea sartzeko espazio nahikoa (Ford focus baten baliokidea). 9,45 m² Tel.: 695 70 68 08

Garajea alokagai San Ignazio auzoan. Garaje lursaila hilean 50 euroren truke alokatzen da Durangoko San Ignazio auzoan. Harremanetarako Tel.: 603 31 12 72

LAN ESKARIAK
Haur hezitzailea Haur hezkuntzan ikasketak dituen neska gaztea haurrak zaintzeko lan bila dabil. Elorrioren eta inguruetan. Tel.: 635 07 88 33

Haurrak zaindu Goizetan haurrak zaintzeko eta etxeko lanekin laguntzeko prest dagoen neska elorriarra naiz. Andereño lanean esperientzia dut. Interesa baduzu, deitu lasai Tel.: 678 21 35 47

Euskara irakaslea Euskal Filologia duen irakasle bat behar dut, C1 azterketa prestatzeko.

Tel: 676 57 94 44

LAN ESKAINTZAK
Umeak zaintzeko pertsona bat behar da. Umeak egun solteak (gaixorik daudenean) eta uztaileko, abuztuko eta iraileko aste batzuk goizetan zaintzeko pertsona bat behar dugu. Esperientzia edukitzea eskatzen da (erreferentziak izatea hobeto). Tel.: 629 75 76 32 (Nagore).

DBH 3 klase partikularrak Durangon. DBH 3. Mailako klase partikularrak emateko pertsona baten bila gabilta. Batez ere matematika, baina beste gai batzuetan errefortzua ere. Tel.: 658 73 11 18

Giza baliabideak kudeatzeko langilea. Pertsona bat behar da Durangoko bulego baterako giza baliabideak kudeatzeko. RRHHen formakuntza edo esperientzia izatea beharrezkoa da, baita komunikatzeko euskara maila egokia ere. Tel.: 946 03 21 53

Goi mailako ziklo eta unibertsitate mailako klaseak ematen dira. Algebra, kalkulua, marrazketa teknika, estatistika,

kontabilitateko klaseak ematen dira. Goizez zein arratsalde, talde txikian eta bakarka. Tel.: 946 55 02 68

Estetika kabina alokatzen da Estetika kabina hornitua eta funtzionamenduan alokatzen da Elorrioren. Bezero finkoak ditu eta bezero kopurua handitzeko aukera ematen du; izan ere, estetika kabina ileapaindegi barruan dago. Tel.: 649 77 83 93 edo 688 71 74 10

Matematika partikularrak emateko pertsona baten bila gabilta 6. mailako (LH) ume bati matematika partikularrak eguerdian emateko pertsona baten bila gabilta. Tel.: 649 56 34 92

Elorrioko baserri baterako langile bila gabilta. Elorrioren 40 urtetik gorako emakume baten bila gabilta, domeketan baserri batean lan egiteko. 9:00etatik 20:00etara. Tel.: 653 72 30 95 (Pili)

Sukaldea garbitzeko pertsona bat behar da. Zaldibarren, sukaldea garbitzeko emakume baten bila gabilta. Hilean 3 egun, kontratuagaz. Tel.: 647 40 60 73

Hemen
eta
online

iragarki
laburrak
.eus

Zorion Agurrak

DOMEKA, 15 - 09:00-09:00
DE DIEGO Intxaurreondo 22. - DURANGO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrungoetxea 5 - ZORNOTZA
ASTELEHENA, 16 - 09:00-09:00
SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrungoetxea 5 - ZORNOTZA
MARTITZENA, 17 - 09:00-09:00
MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrungoetxea 5 - ZORNOTZA
EGUAZTENA, 18 09:00-09:00
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrungoetxea 5 - ZORNOTZA
EGUENA, 19 - 09:00-09:00
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrungoetxea 5 - ZORNOTZA

A young boy with dark hair, wearing black-rimmed sunglasses with orange and yellow reflective lenses, is looking upwards and to the right. He is wearing a white t-shirt with a black and grey graphic of a skull and a tree. He is standing outdoors, with green trees and a clear blue sky in the background. His arms are outstretched, and he appears to be holding onto a railing or fence.

Zorionak, aittitte!
 Eguenean 103 jantzita soinean
 jarraitu egizu beste hainbeste denbora gure artean.
 Joandakoak gogoan
 Kontu barriak buruan
 Ospatu egixuz, ba, merezi dozuzan moduan!
 Maite zaitugu!



familletrako
entzuten
teatrufamilias

doan!
tikitzartelo
teorij
gratis







Marierrauskin
Glu Glu Produktzioak/ 3 urtetik aurrera
Martxoak 15, 12:00 - 18:00etan





Vida
Javier Aranda
Martxoak 21,
19:00etan



Rita
Txalo
Produktzioak
Apirilak 2,
19:00etan

San Agustín
**KULTUR
GUNEAK**
DURANGOKO UDALEA



Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus



"Koktelek esperientzia eta zapore berriak probatzeko aukera ematen dute"

Nerea Gallastegi Astobitzak Bartzelonako European Bartender Schoolen ateratako koktelgintza titulua du. Flair edo koktelgintza akrobatikoan 3. mailara arteko ikasketak ere egin ditu, eta orain 4. maila atera gura du

Nerea Gallastegi Astobitzak (1987, Elorrio)
• Koktel egilea

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Azken zazpi urteetan flair edo koktelgintza akrobatikoan murgilduta dabil Nerea Gallastegi, Tenerifen, Bartzelonan, Londresen eta Marbellan. Betidanik erakarri dute koktelek, zerbitzariengan ikusitako segurtasunak, eta tabernako edari eta objektuen ezagutzak. Pasio du koktelgintza, eta gizonena den mundu horretan geroago eta emakume gehiago daudela azaldu du elorriarrak.

Berba bitan

Koktel bat.

Expreso Martinia, bazkalosterako

Koktel bat hartzeko momentu bat?

Edozein. Ehunka koktel daude, eguneko momentu bakoitzerako

Koktela ala garagardoa?

Koktela

Koktel bat prestatzeko abesti bat?

Ed Sheeranegaz oso gustura aritzen naiz beti

Pelikula bat

'Cocktail'

Zelan definituko zenuke flair-a?

Koktelen munduan, lan egiteko modalitate bat da. Barra batean dauden objektuak erabilia (botilak, edalontziak, koktel-ontziak...) egiten dira koktelak. Estiloa, eraginkortasuna eta azkartasuna lantzen dira, objektuak airean daudela. Zerbitzua atzeratu barik koktelak egiteko mugimendu errealistak erabiltzen dira working flair-ean.

Exhibition flair-ean, ikuskizuna eta lehia dira nagusi.

Zelan hasi zinen koktelen mundu honetan?

Flair-ean munduko txapeldun izandako Eduardo Alonsoren eskutik parte hartu nuen flair lehiaketa batean lehenengoz, Tenerifen. Ikastaro batean ezagutu nuen, eta urte bian lan egin nuen beragaz. Bartzelonako European Bartender Schoolen hasi nintzen gero.

Londresen, ere ibili zara...

The Road House-eko Prepare to Flair lehiaketan parte hartu nuen iaz. Aukera izugarria izan zen, denbora zehatz batean koreografia

bat sortu behar duzu. Oso ondo pasatu, eta asko ikasi nuen. Otsailean munduko onenekin ikasteko aukera izan dut, Marbellako Flair Campen.

Asko praktikatu behar da?

Egunero. Ordu asko eman behar dira horretan. Hasiera gogorra da. Makina bat kolpe hartu ditut, eta zauriak egin ere bai, eta batek baino gehiagok haginak apurtu ditu. Erreflexuak hartuta, errazagoa da. Erresistentzia handiko plastiko botilekin hasi behar da.

Koktelek badute lekua gure kulturan?

Ez dago oso zabalduta. Dena dela, Elorrioren egin izan dugu koktel gaua eta harrera ona izan du. Jendeak esperientzia berriak probatzeko gogo du. Disfrutatzeko eta lasai hartzeko da koktela. Ehunka koktel daude, une bakoitzerako bat. Koktelak are eta bereziagoa egin dezake une bat. Esperientzia eta zapore berriak probatzeko aukera ematen dute.

Lanean ikusten zaituztenean, zelan geratzen da jendea?

Harrituta. Koktela prestatzeko egindako mugimenduak ikusgarriak izaten dira, nahiz eta zerbitzatzen zaudenean erakustaldietarako aukerarik izan ez.

Ikusi duzun koktelik arraroena?

Txipiroi tintadun koktela. Egileak itsasoko zaporeak islatu gura zituen. Koktel bakoitzak istorio bat du atzean.

Baduzu koktel berezirik?

'La Penca'. Hondartza, lagunak eta flair-a gogoratzen dizkit.

Zer behar du koktel batek?

Gozoaren eta garraztasunaren arteko oreka. Itxura, kolorea eta zaporea dira koktela. Erakargarria, desiragarria izan behar du.

Lau-hortza

Markel Onaindia Txabarri
Kazetaria



Amama Miren eta amama Maria

Ahaztu genituen nekazari eta dendari txikiak. Zirkuaeren etorrerak bezala liluratu gintuzten supermerkatu handiek. Dena eskura, uneoro. Nahia beharrian bihurtuta. Non eta zelan erosten dugun erakutsi du, egunotan, koronabirusaren beldurrez gertatzen ari denak. Akaso, berrogeialdia ondo etorriko zaigu daroagun bizimoduaz hausnartzeko.

Orain dena behar dugu, kontsumismoaren dibertsifikazio aroan. Hego hemisferiotik datozen ahuakateak eta kinoak, esaterako, eguneroko dietan beharrian dira. Modako kirol arropa eta tresnak erosita, goi mailako kirolari bihurtu gara. Joan zen asteburuan iruntsi genuen enegarren telesailaren azken denboraldi osoa, eta ea berria laster produzitzen duten, ze, a ze asperdura! Elkanok baino bira gehiago eman dizkiogu munduari, oporretan kanpora joatea nezesidade bat bilakatu zaigulako. Denbora kontsumitua. Mugikor eta teknologia berrienak, arropa... Amazon da gure jainko ahalguztiduna. Sinesmenaren misterioa? Kontua da zer interes ezkututzen den marken, aplikazioen, etiketen atzean; ez gara kasualitatez heldu honaino.

Lerroak lotzen nabilela, akordatu naiz amama Miren eta amama Mariaz. Zer gutxi behar zuten gustura bizitzeko. Gogoan dut amama Maria baserriko sutondoan tertulian, eta amama Miren kafesne-zopak hartzen gure etxeko egongelan. Biak etxekoez inguratutik, etxea eta bilobak gobernatzen. Amama Maria ortua eta oiloak zaintzen, amama Miren etxepeko denda txikian lanean. Zer gutxi, baina asko aldi berean.



maristak

Ikastetxea - Durango

etorkizun oso bat

946810058

www.maristak.com

www.maristak.com



Batxilergoa, Goi-Mailako Heziketa-Zikloak, Erdi-Mailako Heziketa-Zikloak, Oinarriko Lanbide Heziketa, Zikloetarako Sarbide Proba, Enplegurako Formakuntza



Selektibitatea
Unibertsitate
eta LH
prestatuntza...

ATE IREKIAK
Martxoak 25
Batxilergoa eta LH
Asteazkena 18:00-20:00

**Ezagutu nahi bagaituzu,
deitu eta ordua eskatu!**